


## JOSE ANTONIO AZPIAZU

Omendu egingo dute  
maiatzaren 29an,  
Oñati eta Euskal Herriko historia  
ikertzen egindako  
lan oparoa eskertzeko



**MIKEL UGARTE**

Urrian Hawaiiin  
jokatuko den  
munduko  
Ironman  
txapelketarako  
sailkatu da



**BLUES JAIALDIA**

Blues musikaren  
epizentroa izango  
da Oñati maiatzaren  
15 eta 16an





'Oñati Palestinarekin' taldeko kideetako batzuk

# 'Palestina lorategia' izena ipiniko diote Kalegoienako berdegune bati

Palestinarren aurkako genozidioak jarraitu egiten duela salatzeko, 'Oñati Palestinarekin' herri ekimenak antolatu dituen jardunaldiak borobilduko dituen ekitaldia izango da, maiatzaren 24an

Komunikabideetako lerroburu nagusietatik desagertu bada ere, palestinarren aurkako genozidioak jarraitu egiten du; Israelek eraso egiten eta palestinarren eskubideak sistematikoki urratzen jarraitzen du. Horregatik, 'Oñati Palestinarekin' taldeak beharrezko ikusten du Gazan eta Zisjordanian bizi duten egoera krudel eta bidegabea salatzen jarraitzea, eta helburu horrekin Palestinaren Aldeko Jardunaldiak antolatu ditu. Eta jardunaldiak borobiltzeko, Kalegoienako berdegune bati 'Palestina lorategia'

izena ipiniko diote, Udalaren oniritziarekin. "Jardunaldietan burutuko ditugun ekitaldiak denborarekin ahaztu egiten dira, eta pentsatu genuen polita izango zela lorategi bati 'Palestina' izena ipintzea, palestinarrak pairatzen ari diren zapalkuntza ez ahazteko, eta oñatiarren elkartasunaren ikur egonkor gisa", adierazi dute ekimenaren sustatzaileek.

Udalaren apirilaren 23ko osoko bilkurara eraman zuten eskaera, ia 1.000 herritarren sinaduren babesarekin, eta udalbatzak aho batez onartu zuen eskaera, biziaren, erre-



sistentziaren eta itxaropenaren ikur gisa.

**PLAKA ETA OLIBONDOA**  
Maiatzaren 24an egingo da 'Palestina lorategia' izen-

Argazkiko lorategiari ipiniko diote 'Palestina' izena. Plaka bat jartzeaz gain, olibondo bat –palestinarren zuhaitz sinbolikoa– landatuko dute bertan.

**GARBIKETA  
ADMINISTRAZIOA  
ETA KONPONKETAK**

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarten administrazioa
- Konponketa orokorrak



**653 70 45 47**

Oñati

**CORTABARRIA**

**INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA**

**Etxe eta lokalen gestio orokorrak**

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teleline.es

datzeko ekitaldia. Goizeko 11:30etan elkartuko dira plazan, eta kalejiran joango dira Kalegoienaraino, trikiti doinuek lagunduta. Lora-tegiari izena emango dion plaka ezarri eta olibondo bat -palestinarren nortasunaren eta erresistentziaren ikur den zuhaitza- landatuko dute. Isurialde mediterraneoko lore batzuk ere landatuko dituzte inguruan, eta ekitaldia borobiltzeko, Joseba Tapiak -Koldo Izagirreraren hitzekin- sorturiko *Wafa* abestia, -Jerusalem bere burua ezandarazi zuen Wafa Idris erresistentziako militantea gogoratzen duena-, kantatuko dute. Antolatzaileek dei egiten die herritarrei ekitaldi xume baina, era beran, elkartasun keinu goxoa izango den honetan parte hartzera.

Bestelako ekitaldiak ere egongo dira Palestinaren Aldeko Jardunaldietan. Ondoko taulan ikus daitekeen moduan, Ekialde Hurbileko egoerari buruzko solasaldia, Palestinako errealitatera beste begirada batzuetatik hurbilaziko gaituzten laburmetraien emanaldia, eta bi kontzertu eder ere egongo dira.

**'OÑATI PALESTINAREKIN'**  
Orain dela urte eta erdi eratu zen Oñati Palestinarekin Herri Ekimena. Orduz geroztik hainbat ekimen -muralak, elkarretaratzeak, manifik...- burutu izan dituzte, eta aurrerantzean ere lanean jarraitzeko asmoa dute. Taldea erabat irekia da eta herritar guztiak dauden gonbidatuta bertan parte hartzera. •

**TELLATU eta KANALIOIAK**  
Garbiketa eta mantenu orokorra  
688855468  
www.kzz.eus

## 'PALESTINAREN ALDEKO JARDUNALDIAK' / EGITARAUA

### MAIATZAK 20 / KULTUR ETXEAN (19:00)

#### SOLASALDIA: 'Ekialde Hurbileko errealitatea'

Nazioarteko politikan adituak diren Mikel Aramendi eta David Lazkanoiturburu kazetariak ekialde hurbileko egoera aztertuko dute.



### MAIATZAK 21 / KULTUR ETXEAN (19:00)

#### LABURMETRAI EMANALDIA: 'Palestinaren bestelako begiradak'

Palestinako errealitatea normalean ikusten ez ditugun beste ikuspuntu batzuetatik azaltzen duten hiru laburmetrai ikusteko aukera egongo da:

• **Nakbaren Alabak (Las hijas de la Nakba)** | Estela Falastin, (36')

Hainbat emakume palestinarren egunerokotasunean murgiltzen gaitu eta erakusten du horietako bakoitzak, bere erara, nola egiten dion aurre israeldarren kolonizazioari eta biktima paper batera baztertzen dituen mendebaldeko begiradari.

• **Patroi batek kontatzen duena (What a pattern tells)** | Bayan Abuta'ema eta Jon Garate, (14')

Jon Garate oñatiarraren parte hartzearekin ekoiztutako dokumental honek belaunaldi ezberdinetako bi emakume bordatzaile palestinarren egunerokotasuna erakusten digu. Bordatu eta puntada bakoitza adierazpen modu bat bihurtzen da, memoria, kultura eta belaunaldien arteko harremanak ehuntzeko modu bat.

• **Berreskuratze geroratu (Deferred Reclaim)** | Abdallah Motan, (11')

Maite dituzten martiriak desagertu ondorengo amen bizipenak kontatzen ditu filmak, eta baita ehorzketaren ordeztako gorpuk hoztearen praktika okupazionalaz ere. Zuzendaria Ramallahkoa da eta Isralego okupazio indarrek atxilotuta dago urtarillaz geroztik.

### MAIATZAK 23 / KONTZERTUAK (\*)

#### MOHAMA SAZ | Gaztelekuan, 12:30 (10€)

Madrialdik datorren talde hau munduko bazter desberdinetako soinuak fusionatzeko duen gaitasunagatik nabarmentzen da, proposamen berezi eta bakarra sortuz.



#### PARABELLUM + RAMADA INN

##### Gaztelekuan, 22:00 (15€)

Barakaldo talde beteteranoa da Parabellum, punk-rockaren historian benetako ereserkiak utzi dituena. Ramada Inn taldeak ez du aurkezpen handirik behar. Juan Valls buru duen rock talde oñatiarra da. Ander Etxaniz eta Mikel Marcok osatzen dute hirukotea.



(\*) **Aurre-salmenta: Kontzertuetarako sarrerak Arrano (Oñati), Irati (Arrasate), Arrano (Bergara) eta Karibe Zaharra (Legazpi) tabernetan salgai**



### MAIATZAK 24 / (11:30)

#### PALESTINA LORATEGIAREN IZENDAPEN HERRITARRA



Goizeko 11:30etan Foruen plazan elkartu eta kalejira egingo da, trikiti doinuek girotuta, Kalegoienako lorategiraino. Hemen lorategiari 'Palestina' izena emango dion plaka jarri eta olibondo bat -palestinarren nortasunaren eta erresistentziaren sinbolo den zuhaitza- landatuko da. Ekitaldia borobiltzeko, Joseba Tapiak -Koldo Izagirreraren hitzekin- sortutako *Wafa* abestia kantatuko da. Dei egiten zaie herritarrei ekitaldian parte hartzera.

# Ekintzailtza agroekologiko kooperatiboa sustatzeko ikastaroa antolatu du TOKIXAN egitasmoak

> Aurtengo azaroan hasi eta 2027ko ekainean amaituko da ikastaroa, teoria (160 ordu) eta praktika (230 ordu) uztartuz. > Ekainaren 15era arteko epea dago izena emateko

**Tokixan**ek lehen sektorean baldintza duinetan ekoizpen proiektu berriak sortzeko bide berri bat eskaintzeko asmoa du. Horretarako, besteak beste, azarotik ekainera emango den ikastaro bat burutuko du urte honetan. Ikastaroa **Tokixan**ek antolatzen badu ere **Biolur** elkarteak, **Ekintzakoop**, **EHU** eta **MU**ko kideek ere parte hartu dute ikastaro honen diseinuan eta beste erakunde batzuekin batera garapenean ere parte hartuko dute.

Ikastaroa, etorkizunean proiektu agroekologiko bat garatu nahi duten pertsonentzako dago zuzenduta bereziki, baina eremu honetan espezializatu nahi duen ororentzat ere irekia dago.

## BI ATALEKO IKASTAROA

Ikastaroa 2026ko azaroan hasi eta 2027ko ekainean bukatuko da, guztira 390 ordu izango ditu (160 teoriko eta 230 praktikak) eta bi ataletan bereziko da:

### 1. SARRERA

Atal ideologikoa da, *Tokixan* proiektua, elikadura burujabetza, agroekologia eta ekonomia sozial eraldatzailean sakontzeko erabiliko da.

Azaroaren 12tik 26ra izango da. 4,5 orduko 5 klase izango dira astearte eta ostegun arratsaldeetan 15:00etatik 19:30etara Bergaran.

**Gaitegia:** Elikadura burujabetzarako agroekologiaren bidea; ekintzailtza, lanaren burujabetza eta kooperatibismoa; proiektu agroekologiko baten gakoak eta proiektu komunitarioen helburuak eta gakoak.

### 2. IKASTARO LUZEA

Lurra eredu agroekologikoan nola landu ikasteaz gain nekazal proiektu bat

**Etorkizunean proiektu agroekologiko bat garatu nahi duten pertsonentzako dago zuzenduta bereziki ikastaroa, baina eremu honetan espezializatu nahi duen ororentzat ere irekia dago.**

nola abiatu landuko da, beti ere eredu kooperatiboa oinarri izanda.

Ikastaro luzea bi bloketan bereiztuko da:

- Urtarrilaren 12tik martxoaren 11ra: 4,5 orduko 18 klase izango dira astearte eta ostegun goizetan 09:00etatik 13:30etara Oñatin.

- Martxoaren 15etik ekainaren 11ra: astelehenetik ostegunera, 5 orduko praktikak egingo dira, goizez, eskualdeko 2/3 baserrian; teoriar jasotako guztia praktikan bizi eta ikasteko momentua izango da. Eta ostiral goizetan 4,5 orduko klase teorikoak Oñatin.

**Gaitegia:** Lehen sektorearen egitura eta dirulaguntzak; ekintzailatza, lanaren burujabetza eta kooperatibismoa; tokiko ekosistemak; komunitatea, marketin komunitarioa eta komunikazioa; ekoizpena eta kontsumoaren arteko harremana: merkataritza estrategia, pertsonak eta lantaldea proiektu bizigarrietan; baratzegintza agroekologikoaren oinarriak, luraren ezagutza eta maneia; luraren emankortasunaren kudeaketa; nekazal azpiegiturak; landaketa sistemak; nekazaritza eta ganaderitza birsortzailea; baratzegintza biointentsiboa; hazien ugalketa eta mintegia; biodibertsitate funtzionala eta intsektu laguntzaileak; gaixotasunen prebentzioa; tratamendu eraginkorrak egiteko oinarriak; baratzegintza dibertsifikaziorako aukerak; bideragarritasun ekonomiko finantzarioaren oinarriak; bideragarritasun agroekologikoa; lan-arloa eta kudeaketarako gakoak; arautegia eta Fiskalitatea; proiektugintza eta baratz agroekologikoetara bisita sistematizatuak.

### IZEN-EMATEA

Ikastaroan izen emateko epea 2026ko ekainaren 15era arte egongo da zabalik [www.tokixan.eus/formakuntza](http://www.tokixan.eus/formakuntza) atalean edo [tokixan@tokixan.eus](mailto:tokixan@tokixan.eus)-era idatzita. Gehienez 20 pertsonak parte hartuko dute eta gutxienez 10ek. Ikastaroak 2 tarifa izango ditu; osoa eginez gero 150€, eta sarrerakoa bakarrik eginez gero, 50€.

Nekazaritzan instalazio bide berriak garatzeko oinarritzko ikastaroaz gain **Tokixan** proiektuak, jarraipen eta bidelaguntza, test-gunea eta baliabide sorta ere eskainiko ditu. Ekoizleen arteko elkarlana sustatuz, arlo ezberdinetan zerbitzu eta baliabideak partekatuz eta taldekako instalazioak bultzatuz.



## TOKIXAN egitasmoa gorputza hartzen ari da

> Udalak Erguña-Etxeberri baserriaren inguruan lagatako lursaila prestatu eta landaketa lanekin hasi dira jada

Debagoiena 2030 ekimenaren baitan sortutako egitasmoa da **Tokixan**. Elikadura burujabetzaren inguruan egindako gogoeta prozesuaren ostean, elikadura kate osoa (elikagaien ekoizpena, banaketa eta kontsumoa) barnebilduko dituen eredu agroekologiko eta kolektiboa sustatzeko asmoz sortutako irabazi-asmorik gabeko elkarte da **Tokixan**.

Lehen sektorearen beheranzko joerari eta errelebo faltari erantzuteko bide berriak eta estrategiak garatzea da elkartearen erronka nagusietako bat. Ildo horretan, bideragarria izango den eta lan baldintza duinak bermatuko dituen proiektu kolektiboen eredia sustatzea du xede, profesionalki lehen sektorean aritu nahi duten pertsona eta taldeen eskura formakuntza eta instalazio-prozesu egituratua, aholkularitza, mentoretza eta bestelako baliabideak jarritz.

Bide horretan urratsak eman ahal izateko, **Tokixan**ek estrategikotzat ditu herri eta eskualde mailako lankidetzak publiko-komunitarioak garatzea, eta, Ildo horretan, **Tokixan** egitasmoaren koordinazio eta garapenerako talde eragile bat sortu zen iazko irailean, Oñatiko Udala, Gizabidea Fundazioa, Fagor, Biolur, Debagaraia Landa Garapena Elkarte eta Bergarako Ereindajan-ek osatua.

Testuinguru horretan, Oñatiko Udalak San Martin Egoitza Fundazioarenak diren Erguña Etxebarri baserria eta bere jabetzako lur zatia, eta Usako gainaldean dagoen beste lursail baten erabilera (3 hektarea inguru, guztira) **Tokixan** elkarteari lagatzea erabaki zuen, elkartearen jarduna –ekoizpena, formakuntza, test-guneak...– abian jartzeko.

Orduz geroztik, Erguña Etxebarri baserriaren inguruko lursailak txukuntzen eta prestatzen jardun dute **Tokixan** elkarteak kontratatutako bi lagunek, ekoizpenaren ardura izango duten Garazi Elgezabalek eta Asier Zubiak-. Inguruak garbitzeaz



Tokixanek Zubillagako Erguña-Etxebarri baserri inguruan egokitu duen ekoizpen gunea

gain, lehendik kaltetuta zeuden ureztatze eta drainatze azpiegiturak konpondu dituzte, zortzi negutegi eta aire libreko soroak prestatu dituzte eta itxiturak ere berritu dituzte. Erguña Etxebarri baserrian bertan ere txukuntze lan batzuk egin dituzte barrualdean, aldagela, bilera-gela eta biltegi gisa erabili ahal izateko. Eta txukuntze lanak amaituta, ekoizpena ere martxan jarri dute, jada, argazkietan ikusten den moduan. Tomateak, piperrak, berenjenak, kuiak eta sasoi honetako beste hainbat barazki landatu dituzte eta udan hasiko dira lehen uztak biltzen.

### BARAZKIEN BANAKETA ETA KONTSUMOA

**Tokixan**-ek ekoiztiko dituen barazkien banaketa eta kontsumorako aukera ezberdinak aztertu eta jorratu nahi dituzte. Alde batetik, Fagor Ederlanek Bergaran daukan lantegiko jangelan hasitako bide horretan sakonduz, beste jangela kolektibo batzuetara zabaltzeko asmoa dute inguruko beste ekoizleekin batera. Horrez gain, kontsumo talde bat ere sortu nahi dute, eta, bestalde, Oñatiko bertako denda txiki batzuek ere erakutsi dute **Tokixan**-en barazkiak saltzeko interesa.

### TEST-GUNEA DATORREN URTERAKO

Aurten Erguña Etxebarri baserriko ekoizpen gunea modu progresiboan martxan jartzea da **Tokixan**-en asmoa, eta negu partean Oñatiko Udalak lagatuko beste lursaila –Usako gainaldean dagoena, hektarea bat ingurukoa– prestatzen hasiko dira. Asmoa da 2027ko udazkenerako prest edukitzea, proiektu agroekologikoren bat abian jartzeko asmoa duten ekintzaileek test-gune bezala erabili ahal izan dezaten. Proiektu agroekologikoak diseinatu, esperimentatu eta hedatzeko gunea izango da, ekoizpen esperientzia erreal baten gainean. •



Lehen landaketak egiten hasi dira Tokixan egitasmoaren baitan



IKER OÑATE AIASTUI  
udaleko Ingurumen  
batzordeko burua



## "Oñatiren erreferentzialtasuna indartuko da ekoizpenaren eta burujabetzaren alorretan"

### Tokixanek Oñatin ekingo dio ekoizpenaren adarrari.

Hala da. Tokixanek badu elikadura burujabetza eta ekoizleentzat baldintza duinak uztartzeko anbizioa. Askotariko eragileak barnebiltzen ditu, eta baditu epe luzeko ibilbiderako eta hobekuntza errealak egiteko aukerak. Debagoiena mailako egitasmoa izaki, sarearen parte bilakatu ginen, eta ikusi genuen Oñatik ekarpen esanguratsua egin zezakeela lurren lagapenarekin.

### Zein ekarpen egiten dio Oñatiri?

Oñatiren erreferentzialtasuna indartuko da ekoizpenaren eta elikadura burujabetzaren alorretan. Horrekin batera, gaiaren inguruan egina dugun planak jasotako ekintza nagusietako bati heldu ahal izango diogu: errelebo aldaketarako bitartekoak eskaintzeari. Tokixanek ez du ekoizpen gune soil bat eskainiko. Formakuntzarako ere balioko du, eta, tartean, test guneak eskainiko ditu nekazari berriek lehen sektorea ezagutu eta euren proiektua garatzen hasteko aukera izan dezaten.

### Nora eroango dira bertara ekoiztiko produktuak?

Tokixanek jangelei begira dihardu nagusiki, uste duelako gako izan daitezkeela produktuen bolumena handitu eta ekoizleen baldintzak hobetzeko. Horri loturiko zenbait bide ari da aztertzen Oñati mailan. Herriko zenbait dendekin ere jarria da harremanetan. Bertan ekoiztikoaren zati bat herrian geratuko da.

### Elikadura burujabetza estrategikoa da udal gobernuarentzat?

Dudarik gabe. Konpromiso horrekin hasi genuen legealdia. Uste dugu beharrezkoa dela elikadura burujabetzan sakontzea, etorkizunean ere aukera eta autonomia izan ditzagun tokiko produktuak, kalitatezkoak, osasungarriak... kontsumitzeko. Ekoizlerik gabe ez dago halakorik, eta, horretarako, eredu berriak bultzatzen eta lan baldintzak hobetzen hasi beharra dago.

# “ ZEREN ZAIN ZAUDE AURREZTEN HASTEKO? ”

500 Mb-eko ZUNTZA

+ 2 MUGIKOR-LINEA

**34,90€**/HIL  
BEZa barne



Zatoz LIZKER INFORMATIKA  
dendara, kontrata ezazu  
zuntza + mugikor linea bat eta  
aukeratu zuretzat opari hau



**LIZKER**  
INFORMATIKA

ATZEKO KALE 32 | OÑATI, GIPUZKOA

TLF: 943 090 600



(BEZa barne). Eta aukeratu aire bidezko frijigailua. Maiatzaren 1etik maiatzaren 31ra, eskaintzan kontratua baduzu: 500 Mb-eko zuntza + 2 mugikor-linea, dei mugagabeekin eta partekatuzeko 50 GB-rekin, hilean 34,90 €. Instalazioan 229,90 €-ko deskontua, 3 hilabeteko iraupen-konpromisoarekin. 5G abiadura, estaldura eta 5G terminalera lotuta. Existentziak amaitu arte. Ikusi gainerako baldintzak hemen: [www.masmovil.es](http://www.masmovil.es)

# MASMOVIL

AURREZTU, ETA KITO

# "Etxebizitza planari esker, bide-orri oso eta erreal bat dugu esku artean"

» Iزارo Elorza, alkatea, eta Iñigo Ruiz, Hirigintza batzordeburua

Urteetako lanketaren ostean, Oñatiko Udal gobernua martxoan aurkeztu zuen Etxebizitza plana. Horrekin batera, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitzaren Euskal Behatokiak gune tentsionatuen zerrendan sartu ondotik, Oñati formalki gune tentsionatu izendatzeko eskaera egitea onartu zuen udalbatzak. Orduetik, planak jasotako askotariko ekintzak abiarazteko lanean ari da Udala. Etxebizitza planaz, herriaren egoeraz, aurrera begirako asmoez... jardun dute Iزارo Elorza Arregi alkateak eta Iñigo Ruiz Barron Hirigintza batzordeburuak.

## Etxebizitza plana aurkeztu duzue.

**Iñigo:** Hala da. Urteetako lanketaren ostean, hiru urteko epealdirako Etxebizitza plana aurkeztu genuen martxoaren hasieran. Oro har, esan daiteke Gislanek egindako analisi sakonari eta Hiritik At hirigintza aholkularitzak horretan oinarrituta landuriko ekintza planari esker, bide-orri oso eta erreal bat dugula esku artean.

**Iزارo:** Guretzat lehentasun da etxebizitzaren gaia. Zuzenean udalon eskumenekoa ez den arren, eta gure baliabideak mugatuak diren arren, begira geratzea ez da aukera bat. Lehenengo, Debagoiena mailako azterketa orokor bat egin genuen EH Bildutik, eta, ostean, herri mailako lanketari ekin genion Udalean. Oro har, plan bakoitza herri bakoitzera egokitu beharra badago ere, ikusi dugu badaudela herri guztietan errepikatzen diren joerak, nolabait, orain arteko etxebizitza politiken ondorio direnak.

**Oñati gune tentsionatu izendatzeko eskaera egitea ere onartu zuen udalbatzak. Garrantzitsua da izendapena?**

**Iزارo:** Izendapena bera, bere soilean, ez da asko. Erraminta bat gehiago da. Arzoari irtenbidea emateko konpromisoa, eta, beraz, ekintzak, behar dira. Ordu-rako bagenbiltzan Etxebizitza planaren lanketarekin. Hasia genuen bidea, eta izendapenik gabe ere jarraituko genuen horretan, baina pentsatu genuen ez zela

arduratsua gune tentsionatuen zerrendan egonda eskaera formalik ez egitea.

**Iñigo:** Zerrendan egoteak, nolabait, baliotza izan zuen berresteko Oñatin arazoa egon badagoela eta zerbait egin beharra dagoela. Salerosketa prezioak azken urteotan izandako igoera mailagatik gaude zerrendan. 2018 eta 2023 epealdian –Legeak epealdi hori zehazten du–, salerosketa prezioek %36,5 egin zuten gora, eta, KPlak, %19,4. Alde handia dago.

## Harremanetan al zaudete Eusko Jaurlaritzarekin?

**Iزارo:** Bai. Gune tentsionatu izendatzeko tramiteekin ari ginela jarri ginen Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan; egina dugu bilera bat. Planean jasotako zenbait ekintzek erakunde desberdinen inplikazioa eskatzen dute, eta jakin gura genuen horretarako aukerarik zegokeen. Ekintza planaren hasierako aurkezpen bat ere egin genion, eta egoki ikusi zuen. Orain, ofizialki onarpena jasotzeko zain gaude. Bilera gehiago egingo ditugu

datozen hilabeteetan.

**Lanketaren arabera, etxebizitzen salerosketa politikak nagusitu dira orain arte. Garrantzitsua da alokairua bultzatzeko politikak abiaraztea?**

**Iزارo:** Bai. Hasiera-hasieratik, ekintza plan integral bat lantzea izan da asmoa, askotariko herritarren egoerak kontuan izango dituen. Adituek diote akatsa litzatekeela etxebizitza politikak salerosketa mugatzea. Gainera, Etxebide etxebizitzaren euskal zerbitzuan erregistratuta dauden 219 etxebizitza eskaeretatik gehienak, %83,1, alokairuari lotutakoak dira –hori da une honetan etxebizitza eskaerari lotuta dagoen erregistro publiko bakarra–. Kontuan izan beharreko datua da, nahiz eta jakin erregistratutako datu horiez aparte badirela beste era bateko eskaerak, merkatu pribatukoak, adibidez.

## Etxe berriak eraikitzea aurreikusten al du Etxebizitza planak?

**Iزارo:** Esan moduan, era askotako ekintzak behar dira, elkarrekiko osagarriak. Planak bi lur-sailetan eraikitzeo aukera du jaso, Kurtzekuan eta Kurtederixan (Kasablanka). Horietan lehena udal jabetzako saila da, eta babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeo proiektua abiaraztea da asmoa. Hasiak gara bertako promozioak izan behar lituzkeen baldintzak aztertzen eta Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanerako moduak lantzen. Esan bezala, udalok baliabide mugatuak ditugu halako proiektuak abiarazteko, beraz, erakunde desberdinen inplikazioa bilatu beharra dago. Kurtederixa ingurukoa, ostera, lurzoru pribatua da, beraz, gaur-gaurkoz, promozioa abiaraztea ez dago Udalaren esku. Bi proiektuen artean 60tik gora etxebizitza eraikitzeo aukera legoke.

**Iñigo:** Kontuan izan behar dugu, dena den, babes publikoko etxebizitzez

IZARO ELORTZA ARREGI | Alkatea

**Dagoeneko egina dugu bilera bat Eusko Jaurlaritzarekin. Gehiago egingo ditugu datozen hilabeteetan.**

**Etxebizitza planak bi lur-sailetan eraikitzeo aukera du jaso, Kurtzekuan eta Kurtederixan (Kasablanka).**



**IÑIGO RUIZ BARRON** | Udaleko Hirigintza batzordeko burua

## Egungo etxebizitza parkeak eta epe ertainean eraikitzea aurreikusten denak era egokian erantzungo diete Oñatiko biztanleriaren beharrei

### Bizi dugun egoera azken hamarkadetako etxebizitza politiken ondorioa da

aparte, promotore pribatuek gelditu dituztela beste zenbait proiektua, eta beste batzuk mugitzen hasiak direla. Adibidez, gune tentsionatu izendatzeko eskaera egitea onartu genuen osoko bilkura berean egin zuen udalbatzak San Martinen etxe berriak eraikitzekeo baimenaren lehen onarpena.

#### Oro har, azken urteotan etxebizitza nahikoa eraiki dira?

**Izaro:** Nahikoa, ez dakit. Diagnostikoak ondorioztatu du 2010 eta 2023 bitartean 5.070etik 5.538ra igo dela etxebizitza kopurua, hau da, %9,2. EAEko eta Gipuzkoako batez bestekoen gainetik dago. %7,5ekoa da EAEn, eta, %7koa, Gipuzkoakoan.

**Iñigo:** Dena den, etxebizitza parkearen inguruko balorazioa ez genuke azken hamarkadetan eraikitako etxebizitzetara mugatu behar. Hori da, hain zuzen ere,

orain arte nagusitu den joera, eta gaurko egoerara ekarri gaituena. Etxebizitza berriak eraiki behar dira, bai; baina bestelako bideak ere indartu behar dira, bestela nekez topatuko dugu benetako irtenbiderik. Hori esanda, Gislán eta Hiritik At aholkularitzek berretsi dute gaur egungo etxebizitza parkeak eta epe ertainean eraikitzea aurreikusten diren etxebizitzek era egokian erantzungo dietela Oñatiko biztanleriaren beharrei, demografiaren eta bizikidetzaren unitate kopuruaren hazkundeai...

#### Babestutako etxebizitzak eraiki dira tartean.

**Izaro:** Bai. 2021 eta 2023 urte bitartean babestutako 657 etxebizitza eraiki ziren Oñatin. Horietatik 231, deskalifikatuta daude dagoeneko, eta ezin daiteke jakin hasierako egoera mantentzen duten edo dagoeneko merkatu librean saldu diren. Gainerako 426 etxebizitzetatik ia

gehienak babes ofizialekoak dira (419 etxebizitza), eta, 7, alokairu sozialekoak. Horiek horrela, gaur-gaurkoz, Oñatiko etxebizitza parkearen %7,7 dago babestua.

**Iñigo:** Hor bada beste irakurketa bat ere: orain arteko politiketatik eratorrita, etxebizitza horietako batzuek babes-izaera galdu dute eta merkatu librean sartu dira. Ez dakigu jada saldu diren ala ez; baina saltzen badira, ez dute prezio-mugarik izango. Horrek jatorrizko helburua bertan behera uzteko arriskua dakar, eta etxebizitza horiek merkatuaren espekulazioaren dinamiketan sartzeko aukera handitzen du.

#### Etxebizitza politikek norabide aldaketa eskatzen dutela diozue.

**Iñigo:** Bai. Horrela diote adituek. Gaur egungo egoera ikustea besterik ez dugu. Bizi dugun egoera, azken hamarkadetakoa etxebizitza politiken ondorioa da. Oñatiko ez da kasu isolatua; etxebizitzaren, arazo orokorra da. Orain, etxebizitza politikak bide onean jartzea dago gogitu, askotariko ekintzak abiaraztea, babestutako alokairua bultzatuz, etxebizitzak mobilizatzeko bitartekoak eskainiz, etxebizitza berriak modu antolatuan eraikiz... Bide horretako politikak ari dira gailentzen gaur egun, ikusi delako orain arte moduan jarraituta nekez emango zaiola buelta gaur egungo egoera larriari.

#### Zeintzuk dira hurrengo urratsak?

**Izaro:** Etxebizitza planean jasota dauden ekintzekin jarraitzea. Dena den, argi dugu plan hau ekintza zehatzetatik harago doala. Lanketa honek, etxebizitza politiken norabidea aldatu du, oinarri batzuk finkatu ditu, eta igartzen da. Adibidez, San Martineko promozio berrirako baimena tramitatzean, igarri dela esango nuke. Ahal genuen neurrian eta gure eskumen mugatuekin, saiatu gara eragiten promotoreek herritarren beharrak ahalik eta egokien aseko zltuzkeen proiektu bat aurkez zezaten. Bestetik, Etxebizitza planaren aurkezpenarekin egin genun bezala, saio informatibo berriak egingo ditugu datozen hilabeteetan, gai edo zerbitzu zehatzen ingurukoak. Etxebizitza alokairuan jarri gura duenarendako lagungarri diren Bizigune eta ASAP programen inguruan jardungo dugu laster iragarriko dugun hurrengo saioan. ■

# Euskal Herriko eta Oñatiko historia aztertzen egindako lanari aitortza

Jose Antonio Azpiatzuk omenaldia jasoko du maiatzaren 29an

Filosofia ikasketak amaitu berritan Julio Caro Baroja antropologo eta historialari handia ezagutzeko zoria izan zuen, eta hark ireki zion, hein handi batean, ikerketarako bidea. Gerora, 40tik gora liburu, bereak, talde-lanean idatzitako beste dozena bat lan, eta makina bat artikulua idatzi ditu Jose Antonio Azpiatzuk. Hango eta hemengo artxiboetan arakatuz, orainsu arte ezezagunak ziren hainbat kontu eman ditu argitara, batez ere XVI eta XVII. gizaldietako euskal herritarren bizimodu eta bizibideez. Horietako batzuk harrigarriak: kortsario eta piraten inguruak, esklaboen trafikoa aritzen ziren euskal merkatariez, euskal emakumeek garai haietan zuten rol garrantzitsuari buruzkoak... Gure gizartea eta kultura aberasten lagundu duten ikerketa lanak, denak ere. Horregatik, guztiagatik, Artixa kultur elkarteak, Udalaren babesarekin, omenaldia egingo dio maiatzaren 29an, kultur etxean, 19:00etan. Azpiatzuren ibilbidea ezagutu nahi izan dugu.

## Hasteko, zalantza bat. Zure libururen baten berri eman behar dugunean zalantza izan ohi dugu oñatiarra ala legazpiarra ipini. Zer diozu?

Jaio, Legazpin jaio nintzen, baina lotura handiagoa daukat, beharbada, Oñatirekin. Aita eta ama oñatiarrak ziren, emaztea ere hala da, seme-alabak hemen jaio ziren, eta bizitza erdia baino gehiago Oñatin eman dut. Kontua da, aittajuna Patrizionera joan zela lanera, eta han jaio nintzela. Beraz, bietatik pittin bat.

## Dena den, lehen eskolak Oñatin jaso zenituen, ezta?

Bai, nire lehengusu Irene jaio zenean, ni bost urteko mutiko koskorra nintzen artean, amak Oñatira ekarri ninduen, Uribarriko Hegikua baserrira, umea zainketara, eta Uribarrin eskola zegoenez, hantxe hasi nintzen, Satur Murga andereñoarekin. Bi urte egin nituen bertan. Hurrengo bost urteetan Legazpiko eskola nazionalean ibili nintzen, eta han nengoela, Aita Elias agustinoaren bisita izan genuen, bokazio bila, eta nik izena eman nuen. Aitak ezezkoa esan zidan, baina tematu-edo egingo nintzen eta, halaxe, hurrengo urtean Oñatin nengoen berriz ere. Bertan egin nuen Batxilergoa eta nobiziotza, eta handik Harora, Filosofia ikastera.

## Erroman ere egon zinen ikasten, ezta?

Bai, Haroko ikasturtea amaitzear zela Aita Oleagak galdetu zidan ea Erromara

joan nahi ote nuen, eta, jakina, niretako goxoki bat zen. Etxean ere begi onez ikusi zuten eta hara abiatu nintzen 18 urte nituela. Hiru urtez egon nintzen bertan, 1962-1965 artean, Vatikanoko II. Kontzilioko garaian, hain justu. Urte oso aberasgarriak izan ziren niretzat. Handik Madrilera etorri nintzen, Complutensera, Erroman ematen ez ziren ikasgai batzuk konbalidatu edo baliozkotzera.

## Lesakan hasi zinen lanean, irakasle.

Madrilgo ikasturtea amaitu ostean, Gas-teizen eta Bilbon pasa nuen denboralditxo bat, ikasten eta lanean. Ordurako libre samar genbiltzan, baina Bilbon nengoela, Aita Lasaren deia jaso nuen, Lesakan batxilergoko irakasle bat behar zutela, eta nik Agustindarrekiko nolabaiteko zorra sentitzen nuenez, baietz erantzun nion, urtebeterako joango nintzela.

Lesakan nengoela, Donostiako Jankintza ikastolako zuzendari kargua eskaini zidaten eta han eman nituen hurrengo hiru urteak. Gero, Legazpiko lagun batek deitu zidan, Patricio Elorzaren paper fabrika erosteta-buru lanpostua hutsik zegoela esanez. Urtebete egin nuen han, baina berehala jabetu nintzen hura ez zela niretako lana.

Horretan nengoela, ETEOko zuzendari Benito Ijurrak deitu zidan, Soziologiako eskolak emateko, eta bertan pasa nituen hurrengo hamabi urteak. Ordurako abian zen Mondragon Unibertsitatea eratzeo prozesua, eta goi-tituludun irakasleak

behar zirenez, Historiako doktoretza egitea deliberatu nuen, eskolako zuzendaritzaren oniritziarekin.


## Zure ibilbide profesionaleko azken etapa, baina, Oñatiko Nazioarteko Lege-Sociologia Institutuan eman zenuen.

Bai, Institutuko lehen zuzendaria izan zen André-Jean Arnaudek eskaini zidan bertako argitalpen zerbitzuko arduradun lanpostua, eta han eman nituen erretiroa hartu arteko azken hogeitau urteak. Hasieran zalantzak ziren nagusi, eta geure buruari galdetzen genion zenbat iraungo ote zuen halako erakunde batek Oñatin. Gogoan dut, Ipar Amerikatik zetozen irakasleek galdetzen zutela ea argindarrik ba ote zegoen Oñatin. Pentsa. Gerora, baina, beraiek izan ziren Oñatiren defendatzaile sutsuenak: hemengo paisaiak, hemengo eraikin ederrak, herritarrekiko gertutasuna, Jauralaritzaren babesa...

Egiari zor, gauza handia da halako erakunde bat herrian edukitzea, Oñati munduko mapan kokatu baitu. Zenbat eta zenbat ikasle eta aditu etorri ote den Oñatira urte hauetan!

## Lesakan zeundela Julio Caro Baroja ezagutu zenuen eta haren zuzendari-tzapean burutu doktoretza-tesia. Zebaterainoko garrantzia izan du Caro Barojak zure ikerketa lanean?

Handia. Gure maisua izan zen Caro Baroja. Berak ireki zizkigun Berako artxiboko ateak, eta hango dokumentuetan oinarrituta argitaratu genituen lehen ikerketa lanak *Príncipe de Viana* aldizkarian. Berak gomendatutako liburuen irakurketak mundu berri bat jarri zigun begien aurrean, eta berak bideratu ninduen, hein handi batean, ikerketa mundura. Zorte handia izan zen hura ezagutzea. Sarri-sarri elkartzen ginen, batez ere tesia egiten ari nintzelarik. Oso gizon jakintsua zen eta, era berean, oso hurbilekoa, oso apala.



Jose Antonio Azpiazu antxinako dokumentuak aztertzen Oñatiko Gipuzkoako Artxibo Historikoan. Azken 30 urteetan 40tik gora liburu, bereak, argitaratu ditu.

**XVI. gizaldiko euskal gizartea aztertu zenuen doktoretza-tesian –*Sociedad y vida social vasca en el siglo XVI. Mercaderes guipuzcoanos*–, eta gerora ere garai horretan zentratu izan zara, gehienbat, zure ikerketa lanetan. Zergatik?**

Ahal izanez gero, historian atzerago ere jo izango nuen, baina Caro Barojak zioen bezala, XVI. mendean gertatu zen euskal dokumentazioaren loraldia. Orduantxe hasi ziren protokoloak, pleitu edo auziak eta bestelako agiriak idatziz jasotzen, eta, jakina, izugarritzko altxorra da ikerlari batentzat, garai hartako bizimodua eta ekonomiari buruzko informazioa bildu eta kontrastatu ahal izateko.

**Oñati ere bazen nor XVI. gizaldian.**

Garai hartan Donostia, Gasteiz, Iruñea edo Bilboren ia parean zegoen Oñati. Hiriburuek ez zuten 7.000tik gora biztanle edukiko, eta Oñatik 5.000 zeuzkan. Arrasate, Bergara eta Tolosa bera ere baino gehiago zen orduan. Unibertsitateari esker, batez ere, eragin handiko zentro intelektual eta erlijiosoa bilakatu zen Oñati. Rodrigo Mercado Zuazola bera, adibidez, Karlos I. erregearen aholkulari eta konfiantzazko gizona zen, eta beste herritar batzuek ere jardun zuten prokuradore eta gortearen inguruko aginte organo ezberdinetan, eta horrek, noski,

## OMENALDI EKITALDIA

Maiatzaren 29an, ostirala, egingo da Jose Antonio Azpiazuri eskainitako omenaldi ekitaldia, kultur etxeko zine aretoan, 19:00etan. Artixa kultur elkarteak antolatutako ekitaldian Udaleko eta Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko kideek –bertako kide numerarioa da Azpiazu– parte hartuko dute, bere ibilbide pertsonal eta profesionalean egindako beste zenbait lagunekin batera. Azpiazuren ibilbidea laburbiltzen duen bideo bat ere egongo da, eta, jakina, musika ere ez da faltako, horixe baita protagonistaren zaletasun kuttunetako bat. Ekitaldi xumea baina beroa izango da, bihotzez egindakoa, antropologo, historialari eta idazle nekaezin honek merezi duen moduan. Herritar guztiei irekia izango da.

**» Artxiboetan murgildu eta gure arbasoak nola bizi izan ziren deskubritzea zirrarragarria iruditzen zait**

aberastasuna ekarri zuen herrira.

**Doktoretza-tesiaren ondoren, 1995ean *Mujeres vascas, sumisión y poder: la condición femenina en la Alta Edad Moderna* liburua idatzi zenuen, eta gerora, 40tik gora liburu, zeureak, beste dozena bat liburu taldean, eta han-hemenka argitaratutako hainbat artikulu ere bai. Nola egiten da hori?**

Ordu asko sartuta, oporraldiak aprobetxatuz eta, maiz, loari ere orduak kenduta. Baina gustura egiten dudana lana da. Artxiboetan murgildu eta gure arbasoak nola bizi ziren deskubritzea zirrarragarria iruditzen zait. Gainera, zenbat eta gehiago arakatu, orduan eta istorio bitxi eta harrigarriagoak aurkitzen dituzu, eta harrapatu egiten zaitu. Gainera, beti izan dut idazteko zaletasuna; Erroman nengoela ere hainbat artikulu bidaltzen nituen Agustindarren *Erein* aldizkarira.

**Protokoloen artxiboa Oñatin bertan egotea ere lagungarria izango zen.** Bai, noski. Gainera, bitxikeria moduan

esango dizut, neu izan nintzela bertako artxibozaina urtebetez. Jose Maria Agirrebalzategi hil ostean, Iñaki Zumaldek galdetu zidan ea nik hartuko ote nuen bertako ardura, bestela, agian, artxiboa denbora baterako itxiko zuten beldurrez. Ni ETEOn nenbilen lanean eta denbora askorik ez neukan, baina baietz esan nion, eta hantxe jardun nuen harik eta artxibozain berria –Maria Jose Gonzalez– izendatu zuten arte.

Protokoloen Artxiboan informazio asko dago, garai batean egiten ziren sale-rosketa kontratuei buruzkoa eta, jakina, etxean bertan edukitzea lagungarria da. Baina Oñatikoan ez ezik, beste hainbat artxibo munizipalean, Tolosako artxibategi probintzialean, Simancasen (Valladolid), Sevillako Indietako artxiboan... Askok ibilitakoa naiz hango eta hemengo artxiboak arakatzeko, eta dokumentu asko eta asko daukat etxean bilduta. Hasieran ikasi egin behar da XV edo XVI. gizaldiko paperak irakurtzen, baina ohitu egiten zara.

**Askotariko gaiak jorratu izan dituzu zure liburuetan, baina, batzuk bereziki harrigarriak eta zeresana eman dutenak: euskal kortsario eta piratei buruzkoak, esklaboen trafikoan aritzen ziren euskal merkatarien ingurukoak...**

Bai, batzuk esan izan dute ea nola argitaratu daitezkeen kontu horiek, euskaldunon kontrakoak izanik, eta horrelako gauzak. Baina, nola ez ditugu argitaratuko ba? Geuk ez badugu egiten, kanpokoak etorriko dira eta beraien interpretazioa egingo dute.

Kortsarioen eta esklabo-trafikatzaileei buruzko liburuek oihartzun handia izan zuten –lau argitaraldi–, eta emakumei buruzkoak ere bai, ordura arte ez baitzegoen ia ezer idatzita emakumeek XVI-XVII. gizaldietan jokatu zuten rol garrantzitsu eta nortasun handikoari buruz.

Edozein modutan, aitortu behar da mota honetako liburuek nahi baino

2013an  
Eukalerriaren  
Adiskideen  
Elkarteko kide  
numerario  
izendatu zuten  
Jose Antonio  
Azpiazu. Egun  
hartakoa da  
argazkia.



### » Tamalez, gazteen artean ez dut ikusten historiarekin lotutako gaiak ikertzeko amorrutako zaletasun handirik

irakurle gutxiago daukatela eta, ondorioz, ez dela erraza izaten argitaratzea.

**Askotan esaten duzu artxiboetan informazio asko eta asko dagoela oraindik aztergai. Ba al dago ikerketarako zaletasunik belaunaldi berrien artean?** Tamalez, oso jende gutxi aritzen da historia kontuetan eta ikertzen. Zenbatek egiten dute ba Historia ikasketak gaur egun?. Gehienek ingeniarietza, enpresa-gintza eta halakoetara jotzen dute, eta ulertzekoa da, baina, egia hori, ez dut ikusten ikerketarako amorrutako zaletasun handirik gazteen artean.

**Maiatzaren 29an oñatiarren omenaldia jasoko duzu. Zer sentitzen duzu?**

Ez dakit zer esan. Erabateko ustekabea izan da niretako. Eskerrak eman nahi dizkiet, jakina, hau antolatzekeo ardura hartu dutenei, baina ez dakit halakorik merezi dudana.

**Omenaldiak omenaldi, zuk lanean jarraitzen duzu eta, oker ez banago, liburu berri bat plazaratuko duzu urtea amaitu baino lehen, ezta?**

Bai. Oñatiko emakumei buruzkoa izango da. XVI-XIX. gizaldietan gizarte bizitzan eta ekonomian izan zuten protagonismoa azaltzen da. Gauza oso bitxiak aurkitu ditut, nortasun handiko emakumeak zirela erakusten dutenak. Udalaren laguntzarekin argitaratuko da, udazken aldera.

Bestalde, Eukalerriaren Adiskideen Elkartearen bidez –bertako zuzendaritza taldean nago egun– XVI-XIX. mendetako komunikabide edo errepedeei buruzko lan bat egiten ari gara, taldean.

**Antropologia eta historia kontuez gain, bestelako ze zaletasun dituzu?**

Musika. Egun naizen lekuetan beti egon da presente kantua. Lesakan, adibidez, otxote bat sortu genuen. Gaur egun Oñati Abesbatzako kide naiz. Aurten, gainera, urte berezia dugu, abesbatzaren 60. urteurrena ospatzen baita.

Bidaiatzea ere asko gustatu izan zait, beti. Azkenaldian gutxiago, noski, baina bere garaian ibilia naiz Argentinan, Estatu Batuetan, Kanadan, Japonian, Txinan, Thailandian, Norvegian... Askok ikasten da bidaiatuz. ■



## 688 602 089 Eraso sexisten arretarako telefono zerbitzua egongo da San Migel Txiki eta Errekaldeko jaietan

San Migel txiki eta Errekaldeko jaietan, eraso sexisten arretarako telefono bidezko zerbitzua egongo da aurten ere. Jaietan eman daitezkeen erasoen aurrean zalantzak argitu, arreta bideratu edo akonpainamendua eskaintzea izango da zerbitzuaren helburua, bai eta gorabeheren gaineko erregistroa egitea ere. 688602089 telefono zenbakira deituta edo watsapez idatzita, arreta espezializatua jasotzeko aukera egongo da. Zerbitzua ostiral eta larunbat gauetan egongo da martxan, 22:00etatik 8:00etara bitartean.



**San Migel Txiki (maiatzak 8-10) eta Errekaldeko (maiatzak 29-31) jaietan egongo da martxan telefonoa**

## Segurtasun Mahaia sortu eta udaltzain zerbitzua asteburu gauetara zabaltzea proposatu du EAJk



Herriko segurtasuna hobetzeko beharra mahai gainean jarri du EAJren udal taldeak, asteburu gauetan udaltzaingoaren presentzia falta azpimarratuz. Amaia Erostarbe bozeramalearen esanetan "ezinbestekoa da udaltzaingoaren zerbitzua 24 orduetan izatea, batez ere asteburu gauetan, segurtasun arriskuak eta beharrak handitzen direnean. Ordu horietan poliziaren presentzia ezak kezka sortzen du herritarren artean, eta hauek une oro babes-tuta sentitzea merezi dute". Ertzaintzarekiko lankidetzaren garrantzia ere azpimarratu dute jeltzaleek, larrialdi egoeretan ahalik eta azkarren erantzun ahal izateko.

Gai horiek aztertzeko, udal gobernuarekin batera Udalean Segurtasun Mahaia sortzea proposatu du EAJk. "Segurtasunak lehentasuna izan behar du. Oñatik udaltzaingo zerbitzu indartsua merezi du, gehien behar duenean esku-ragarri egongo dena", amaitu du Erostarbek.

## Gizarte larrialdietarako dirulaguntzak

Gizarte bazterketa arriskuan dauden herritarrei zuzendutako dirulaguntza deialdia argitaratu da. Dirulaguntza hauek etxearen alokairua, hipoteka, argindarra edota etxeko mantentze gastuetarako ematen dira, Jaurilaritzak ezarritako baldintzen arabera. Azaroaren 30era arteko epea dago eskaerak aurkezteko HAZ bulegoan. Informazio gehiago, udaleko Gizarte Zerbitzuetan. Udalak 229.240 euro bideratuko ditu aurten laguntza hauetara.

## Adikzioen tratamendurako dirulaguntzak

Adikzio mota ezberdinak artatzeko Oñatitik kanpora joan behar izaten duten herritarren eta laguntzen diosen senide edo lagunaren garraio gastuak arintzeko laguntzak ematen ditu Udalak. Aurten 4.000 euroko partida bat dauka Udalak laguntza hauetarako. Azaroaren 30era arteko epea dago eskaerak aurkezteko. Informazio gehiago, udal Gizarte zerbitzuetan.

## Su-detektagailuak jartzeko kanpaina abian

80 urte izan eta etxean bakarrik edo 80 urte dituen beste pertsona batekin bizi direnei zuzenduta dago etxe partikularretan su-detektagailuak ezartzeko kanpaina. Udalak bere gain hartzen du instalatze eta mantentze gastuak. Azaroaren 30era arte aurkeztu daitezke eskaerak. Gaur egun Oñatiko 88 etxebizitzatan daude instalatuta.

## Hilerriko erregelamendua

Udalbatzak hasierako onarpena eman zion apirilaren 23ko osoko bilkuran Udal Hilerriaren Erregimen eta Funtzionamendurako Erregelamenduari..

Orain, erregelamendua jendaurrean jarriko da 30 egunez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik aurrera, interesdunek egoki irizitako alegazioak eta iradokizunak aurkez ditzaten. Aldi berean, testua Udalen webgunean egongo da ikusgai: [www.oñati.eus](http://www.oñati.eus)

Epe horretan alegaziorik aurkezten ez bada, erregelamendua behin betiko onartutzat joko da.

**ARANBURU  
ALTZARIAK**  
Kale Zaharra, 21  
Kale Barria, 11  
Lizaur A., 7  
OÑATI  
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO  
GUZTIETAKO  
ALTZARIAK**  
**LANPARAK,  
TAPIZAK,  
KORTINAK**

**NI  
moda**

**MODA BEREZIA**  
Kale Barria, 12  
Tel. Faxes: 943 71 62 40

## 'Goilarre' programaren baitan hainbat hobekuntza lan egin dira

Herri-onurako mendietako larreetan jarduten duten ganaduzaleen bizi eta lan-baldintzak hobetzea da **Goilarre** programaren helburua. Abeltzainen elkartearekin batera identifikatzen dira egin beharreko hobekuntzak, eta lehentasunak finkatzen. Finantzaketari dagokionez, Udalak eta Foru Altundiak batera kudeatzen dute, larreen azalera eta abeltzain kopuruaren arabera ko-finantzaketa eredu baten arabera, besteak beste. Udalen inbertsioa handitu ahala, diputazioarena ere handitu egiten da. Hala, iaz Oñatiko udalak 27.000 euro bideratu zituen **Goilarre** programara, eta Aldundiak 53.000. Diru horri esker, hainbat hobekuntza lan egin dira gure mendietan: itxitura eta paso kanadiar berriak, bideak ur-askak eta ur instalakuntzen konpondu dira, ganaduarentzako gatzarriak jarri dira... Aurten, herriko 92 abeltzainek egin dute ganadua Aloña, Aitzgain eta Artiako larreetan bazkatzera eramateko eskaera, eta, denera, 2.443 ardi, 179 behi, 578 behor eta 79 ahuntz larreratzeko baimen-eskaerak tramitatu dira.



Goilarre programaren baitan azken hilabeteetan egin diren lanetako batzuk

## Nekazari eta abeltzaintzako dirulaguntza deialdia

Udaleko Landa Garapena sailak herriko lehen sektorea sustatzeko 2026ko dirulaguntza deialdia egin du. Zortzi laguntza lerro bereizi dira guztira:

- Nekazaritza ustialekuak modernizatzeko.
- Bertako produktuak merkaturatzeko.
- Nekazaritza erabilerako ura ordaintzeko.
- Putzu septikoak garbitzeko eta instalatzeko.
- Landa auzoetako ermiten argindarra ordaintzeko.
- Baso-bide pribatuak eraiki eta hobetzeko
- Baserrien kanpoaldean jarritako argi-puntuen instalazioa finantzatzeko.
- Ur hornidura sarera lotu gabe dauden baserrien ur hornidura lanetarako

Udalak 67.010 euro bideratuko ditu aurten goian aipatutako laguntzetara. Zortzi laguntza lerroetatik seitan abenduaren 31ra arteko epea dago eskaerak aurkezteko. Bertako produktuak azokara eramateagatik jasotzen diren laguntzak hiru hilabetetik behin eskatu behar dira, eta nekazaritza erabilerarako ura ordaintzeko dirulaguntzak 2027ko urtarriaren 31ra arte eskatu ahal izango dira. ([www.oñati.eus/tramiteak/dirulaguntzak/landa-garapena](http://www.oñati.eus/tramiteak/dirulaguntzak/landa-garapena)).

## Artzain txaboletan hobekuntza lanak

Oñatiko Herri Onurako Mendietako artzain txaboletan hobekuntza lanak egiteko dirulaguntza deialdia egin du Udalak. Udal ondarea kontserbatzen laguntzeaz gain, abeltzaintza estentsiboa sustatu eta, bide batez, larreak zaintzen laguntzea da helburua. Artzaintza ogibide dutenen eskaerak lehenetsiko dira, eta, bereziki, jarduerari lotutako inbertsio edo gastuak. Udalak 13.000 euroko diru-atala du laguntza hauetara bideratzeko. Informazio gehiago: [www.oñati.eus/tramiteak/dirulaguntzak/landa-garapena](http://www.oñati.eus/tramiteak/dirulaguntzak/landa-garapena).

## 'Auzotasuna' programako dirulaguntzak onartu ditu Udalak

Udalak 100.000 euro pasatxo banatzen ditu urtero herriko landa izaerako 16 auzoen artean, hauen izaera eta nortasuna indartu eta auzo-bizitza mantendu eta indartzen laguntzen duten jarduerak bultzatzeko helburuarekin. Auzo bakoitzean erroldatutako bizilagunen eta baserri kopuruaren arabera egiten da banaketa, baina auzo bakoitzak gutxienez 4.000 euro jasotzen ditu, auzo-alkateen foroan onartu bezala. Horrenbestez, aurten Udalak Auzotasun programara bideratuko dituen 123.230 euroak honela banatuko dira: **Arantzazu** (6.485€), **Araotz** (10.420€), **Berezo** (5.043€), **Garagaltza** (8.053€), **Garibai** (4.620€), **Goribar** (4.620€), **Larraña** (8.454€), **Lezesarri** (7.427€), **Murgia** (6.903€), **Olabarrieta** (19.768€), **Santxolopetegi** (4.620€), **Torreauzo** (4.620€), **Torreauzo** (6.620€), **Uribarri** (6.921€), **Urrexola** (4.620€), **Zañartu** (4.620€) eta **Zubillaga** (16.030€).

### AUZOTASUNA DIRU-ATAL GEHIGARRIA

Auzotasuna programaz gain, 'Auzotasuna diru-atal gehigarria' izeneko dirulaguntza lerroa ere badu Udalak. Dirulaguntza gehigarri honen xedea hauxe da: auzoek bultzatu, baina Udalaren eskumenekoak diren lanetan, edota auzoaz gaindiko herri-onura duten egitasmoetan auzoek bideratutako finantzazioari diru ekarpen gehigarri batekin laguntzea. Aurtengo aurrekontuetan 22.000 kontu saila dauka Udalak dirulaguntza hauetara bideratzeko.

## Landa-bideak hormigoitzeko laguntzak

Landa-bideak hormigoitzeko dirulaguntza deialdia egin du Udalak. Materialen erosketara eta garraio gastuetarako da laguntza, eta baita proiektu-idazketa eta obra-zuzendaritza gastuetarako ere. Titulartasun pribatuko bideen kasuan laguntza jaso ahal izateko bidearen jabetza Udalarri laga beharko bazaio. Ekainaren 11ra arteko epea dago laguntza hauek eskatzeko. Udalak 10.000€-ko diru partida dauka.

## Desfibriladore automatikoa erabiltzen ikasteko saioa antolatu du Udalak

Kanpoko desfibriladore automatikoa (KDA) erabiltzen ikasteko saioa antolatu du Udalak. **Maiatzaren 13an** izango da (kultur etxean, 18:30etan) eta herritar guztiak daude gonbidatuta. Gaur egun herriko bost lekutan daude KDAk (kiroldegian, Eltzian, Azkoagainen, Arrikruzeko kobako aparkalekuan, eta Arantzazuko denda ondoan), baina, jakina, desfibriladoreak eskura egoteaz gain, hauek erabiltzen jakitea ere beharrezkoa da, bihotz-gelditzeren bat gertatzen denean berebiziko garrantzia daukalako ahalik eta azkarren artatzeak, eta horixe da, hain zuzen, Udalak antolatu duen saioaren helburua.

Desfibriladore automatikoak erabiltzea samurra da, oso erreminta intuitiboa baita, baina, hala ere, komeni da oinarrizko protokoloa ezagutzea, egoki erabiliz gero oso lagungarria gerta daitekeelako.



## Udaberriko loreak eta 50€-ko bonoak zozkatuko dituzte TXANDAKO dendetan

'Udaberrian suk erosi, guk saritu!' kanpaina jarri du abian TXANDA dendarien elkarteak, tokiko erosketak sustatu eta bezeroen fideltasuna saritzeko asmoz.

Hala, maiatzaren 23ra arte Txandako saltokietan erosketaren bat egiten dugunean, dendan bertan egongo den zozketa-kutxan sartu beharko dugu erosketa txartela, gure izen-abizenak eta telefonoa jarrita. Maiatzaren 23an zozketa egingo da denda bakoitzean eta saltoki bakoitzak udaberriko lote bat –landarea eta 50€-ko erosketa bonua– banatuko du bere bezeroen artean. Saritutako bezeroei dei egingo zaie maiatzaren 25ean sari bila joan daitezen, eta uztailaren 25era arteko epea izango dute erosketa txartela trukatzeko, saria egokitu zaien dendan bertan.

## Lehen Sorospenen hastapen ikastaroa kirol taldeetan dihardutenei zuzendua

Debagoieneko Gurutze Gorriak Lehen Sorospenen hastapen ikastaroa (6 ordu) emango du **maiatzaren 15ean** (16:00-19:00) eta **16an** (9:00-12:00) Elorregin. Euskal Autonomia Erkidegoko 2025/09/18 Legearen arabera araututako prestakuntza emango da, batez ere kirol klubetan modu batera edo bestera parte hartzen duten profesionaleri eta boluntarioei zuzendua. Izen-ematea eta informazioa: [altodeba@cruzroja.es](mailto:altodeba@cruzroja.es) / 943765576



## Leire Fernandez oñatiarraren 'Letraz' taldea saritua

Euskal Herriko Unibertsitateko diseinu grafikoko eta tipografiako LETRAZ ikerketa taldea saritua izan da aurten ere *Pelikanoz Award* sarietan. Diseinu grafikoaren arloko nazioarteko bikaintasun estandar bat da *Pelikanoz*, produktuei, edizioari, packagingari edota publizitateari aplikatutako ilustrazio lana balioan jartzen duena, eta, esan bezala, EHUko *Letraz* taldearen *Oceanus Plasticus* proiektua saritu du kartel, liburu ilustratu eta erakusketa aktibisten ataletan Urrezko *Pelikanoz* banarekin. Leire Fernandez Iñurritegi dela EHUko *Letraz* ikerketa taldeko sortzaileetako bat.



 **Mikel Egaña Urrutia**  
Aseguruak

Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:

- ✓ Heriotza
- ✓ Autoak
- ✓ Bizitza
- ✓ Istripuak
- ✓ Ontziak
- ✓ Osasuna
- ✓ Etxebizitza
- ✓ Aurrezkitza
- ✓ Laborantza

Helbidea: Motxon 5, behea  
638 16 79 84  
[mikel.egana@egantes.catalanooccidente.com](mailto:mikel.egana@egantes.catalanooccidente.com)

 **PINTURAS**  
**URBIA**  
MARGOAK

Ultzegin kalea, 3 - Behea B / 652 710 837

# 'AITATXO'

## Dokumental emanaldia

- > Aitareen doluan arretoa jartzen duen dokumentala ikusteko aukera izango dugu maiatzaren 12an, Elkar Zainduz taldearen eskutik.
- > Seme-alaba baten galeraren dolua azaltzen du aitaren begiradatik.
- > Dokumentaleko protagonistetako bat etorriko da eta emanaldiaren ondoren egongo den solasaldian parte hartuko du.

Galera baten osteko dolua bizi duten pertsonentzako *Elkar Zainduz* autola-guntza taldearen eskutik **Aitatxo. Isiltasuneko ahotsak** dokumentala ikusteko aukera izango dugu Oñatin, maiatzaren 12an (zine aretoan, 18:30). Doluaren gaia oso modu hurbilean jorratzen du dokumentalak, eta, bereziki, aitaren doluan jartzen du arretoa. Seme-alabaren bat galdu duten lau aiten testigantzen bitartez aiten sufrimendua eta dolurako eskubidea plazaratzen ditu. Bakoitzak egoera horri nola aurre egin dion azaltzen du, gizarteak duen genero begirada apurtuz, ama gutxietsi gabe, aitei hitza emanez horrelako egoeren aurrean, esperantza mezu bat zabalduz.

"*Elkar Zainduz* taldean askotan ikusten dugu dolua isilean bizitzen dela eta horrek bakardade handia sortzen duela", azaldu digu Arantxa Kortabarriak. "Horregatik, Oñatiko udalarekin batera Aitatxo dokumentala ekarri nahi izan dugu, gai honi argi pittin bat emateko eta denon artean hitz egiteko espazio bat sortzeko. Gainera, aitek dolua nola bizi duten erakustea ere garrantzitsua iruditzen



» **ANAKOTZ LASARTE**  
Dokumentalaren sustatzailea

» **Gizarteak amengan ipini ohi du arretoa; aitek bigarren planoan geratzen dira. Baina geuk ere atera behar dugu gure barruko mina.**

zaigu, askotan bigarren planoan geratzen den gaia delako. Dokumentalean argi ikusten da dolua ez dela berdina pertsona guztientzat eta gizonek askotan zailtasunak izaten dituztela sentitzen dutena adierazteko".



Kultur etxeko zine aretoan izango da emanaldia, maiatzaren 12an, 18:30etan

### SOLASALDIA

Dokumentalaren ostean solasaldirako tarte egongo da eta bertan izango da Anakotz Lasarte, dokumentalaren sustatzailea. Anakotzek eta bere emazte Iratxek bi ume galdu zituzten –Gari, haurdunaldian, eta Ekai, jaio eta egun gutxira–. Dolua berandu egin izanak eta barruko mina atera ez izanak utzitako ondorioez mintzo da dokumentalean. "Gizarteak amengan ipini ohi du arretoa, baina aitok ere atera behar dugu gure sufrimendua".

Leuzemiaz hildako 6 urteko haur baten eta 32 urterekin bat-batean zendu zen emakume baten gurasoen testigantzak eta hainbat profesionalen azalpenak ere jasotzen ditu dokumentalak.

Halako ekimenek jendea bakarrik ez sentitzen laguntzen duela uste du *Elkar Zainduz* taldeko Arantxa Kortabarriak. "Besteen bizipenak entzuteak askotan asko laguntzen du, eta bakoitzak bere dolua ulertzeko edo kokatzeko aukera ematen du. Azkenean, komunitate moduan elkarri eusteko modu bat ere bada". ■

 **ZURICH**

M<sup>a</sup> del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea  
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

**HARALD LINDER**

ETXEETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK  
PERSIANAK, LENOAK, LUB FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...

DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA  
SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GENAGO

OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 ONATI - GIPUZKOA

**695 78 91 04 - 943 04 47 77**



Apirilaren 22an egin zuen Hermansoloña elkarteak urteko batzar orokorra

## Iaz 46.000 euro biderau zituen Hermansoloñak elkartasun proiektu ezberdinetara

Kale Zaharreko arropa bildegia itxi zenetik ikusgarritasun gutxiago badu ere, Hermansoloña gobernuz kanpoko elkarteak lanean zintzo jarraitzen du eta, hala, iaz 46.000 euro pasa bideratu zituen elkartasun proiektu ezberdinetara. "Pekaturia litzateke nagikeri edo erosokeriagatik diru kopuru hori pasatzen uztea", esan zuen Jose Antonio Urteagak, urteko batzar orokorrean. Oñatiko Udala da diru iturri nagusia –iaz 29.285 euro–, baina Hermansoloñak berak beste 25.000 euro inguru biltzen ditu urtean, enpresa eta bazkideen ekarpenei eta urtean zehar antolatzen dituzten ekintza ezberdinei esker. Diru horren zatirik handiena –40.000 euro inguru– Argentinako Jose C. Paz hirian –Oñatirekin anaitutako herria– eta Jujuy dituen elkartasun proiektuetara joaten da eta beste 12.000 inguru Tinduf-eko errefuxiatuen kanpalekuetara, Oñatiko saharar elkartearen bitartez. Hotz-Oñati elkartearekin ere kolaboratzen du Hermansoloñak logistika mailan, batez ere. Orain, gainera, Oñatiko Elkarzabal elkarteak kudeatzen duen proiektu batean ere laguntzen hasi da, Guineako eta inguruko gaixoei laguntzeko zentro bat eraikitzeko.


## Pake Leku elkarteko zuzendaritza talde berria



Lau kide berriekin eta lehendik jarraitzen duten beste zortzi lagunekin osatuta geratu da Pake Leku jubilatuen elkarteko zuzendaritza berria. Egunotan –maiatzaren 2tik 9ra– Egipton dabilta herriko hainbat jubilatutako. Bestalde, maiatzaren 12an karta-jokoaren finalak izango dituzte Ordizian, eta hilaren 28an Gurutze Gorriaren hitzaldia Pake Leku, 18:15etan. Gogoratu, gainera, Udalak segurtasun araudiak agintzen dituen hainbat lan egin dituela Pake Lekuko instalazioetan 30.000 euroko aurrekontuarekin.



Pake lekuko kideak Egipton



## Alvarez de Eulateri buruzko erakusketa Arantzazun

Arantzazuko Basilikako beirerateak jarri zireneko 70. urteurrena betetzen da aurten, eta hori dela eta, Xavier Alvarez de Eulate (1912-2012) artistaren figura eta lana gogoratzeko erakusketa antolatu du Arantzazuko Frantziskotar Probintziak eta Adiskideen Elkarteak. Ekainaren 28ra arte egongo da ikusgai basilikako klaustroan, larunbatetan (11:00-13:00) eta igandeetan (11:00-14:00). Gainera, larunbatetan (11:00) bisita gidatuak egingo dira, alde zuzenetik izena emanda (eulate@arantzazu.org). Gehienez 12 pertsona bisita bakoitzeko. Arte sakro garaikideko sortzailerik berezietako baten legatuan murgiltzeko aukera bikaina.

## Zaldiak eta surfa, Pottokalekuko udalekuetan

Pottokak eta surfa, mendia eta itsasoa uztartuz bost eguneko Udalekuak antolatu dituzte Pottokalekun. Zehazki, 5 eguneko 5 txanda antolatu dituzte: **ekainak 28-uztailak 3, uztailak 5-10, uztailak 17-17, uztailak 19-24 eta uztailak 26-31**. Hiru egunetan pottokekin ibiliko dira, eta beste bi egunetan surfa egitera joango dira Lekeitiora. Informazioa eta izen-ematea: 670 274 461 / 688 640 647 / [jelorzarza@hotmail.com](mailto:jelorzarza@hotmail.com)

# 'Bizipoza Eskola'

## Oñatira ere iritsi da

- > Herriko ikastetxeek eta zazpi talde eragilek parte hartu dute ekimenean.
- > Eltzian margotu duten mural erraldoi batean irudikatu dute emaitza.
- > Denona eta denontzat izango den Euskal Herria eraikitzea da Bizipoza Elkartearen helburua.



EREI elkarteko ordezkariak DBH4ko ikasleekin solasean Gaztelekuan

BIZIPOZA elkarteak irabazi asmorik gabeko gizartegintza egitasmoa da, **'Denona eta denontzat izango den Euskal Herria'** eraikitzea helburu duena. Izaera bereziko gaiak –aniztasun funtzionala, familia aniztasuna, gaixotasunak, heriotza osteko dolua, transexualitatea, kultur aniztasuna, boluntarioria...– jorrazten dituzten Euskal Herriko 38 elkartek osatzen dute Bizipoza ekimena, hala nola, *Aspanogi*, *Naizen*, *Euskal Herriko Down Syndrome Fundazioa*, *Hil Argi Elkarte*, *Inurriak*, *Oporrak Bakean*, *Pausoka*...

Elkarte horietako haur eta familiei laguntzeaz gain, *Bizipoza* elkarteak hainbat baliabide eskaintzen ditu elkarte horiek transmititzen dituzten balioak jendartean hedatzeko asmoz. Eta baliabide horietako bat da **'Bizipoza Eskola'** webgunea ([bizipoza.eus/eskola](http://bizipoza.eus/eskola)). Bertan aurkituko ditugu gida didaktikoak eta 300dik gora jarduera –harrera protokoloak, dokumen-

talak, elkarrizketa gidatuak, eskulanak, abestiak, ipuinak...–, adin eta maila ezberdinetera egokituta, aipatutako balio horiek hezkuntza arautuan (Haur Hezkuntzan hasi eta goiko mailako hezkuntzaraino), hezkuntza ez-arautuan eta herrigintzako eragileekin batera jorrazteko.

### 'BIZIPOZA ESKOLA' OÑATI

*Bizipoza* elkartearen balioak Debagoiena eskualdean zabaltzeko asmoz, Fagorrek eta *Bizipoza* elkarteak lankidetzat hitzarmena sinatu zuten 2025eko martxoan. Hitzarmen horren baitan, Txatxilipurdi elkarteak izendatu zuten 'Bizipoza Eskola' ekimena baliaren garatzeko eta, hala, zortzi herrietara egokitutako ekintzak eta lanketak burutu dira 2025/26 ikasturtean zehar, tokian tokiko hezkuntzako eta herrigintzako eragileak protagonista izanik.

Oñatiri dagokionean, *Zapotxin* eta *Pontx* pailazoaren emanaldia egin zen irailean, *Bizipoza* zer den azaltzeko LH-3 eta 4ko

### PARTE HARTU DUTEN TALDE ERAGILEAK

#### • GALUHA

Oñatiko sahararren elkarte

#### • TRAUTI

Irisgarritasun eta mugikortasun arazoak dituzten herritarren eskubideen aldeko elkarte

#### • ELKAR ZAINDUZ

Dolurako autolaguntza taldea

#### • HOTZ-OÑATI

Errefuxiatuen giza eskubideen aldeko taldea

#### • EREI

Errealitate migratzaileak aztertuz, justizioa sozialaren alde diharduen taldea

#### • OÑATI

Minbizi zuzenean nahiz zeharka bizi duten pertsonak ahalduzko taldea

ikasleei. Horrez gain, ikasturtean zehar herriko 6 elkartek hainbat hitzaldi-solasaldi egin dituzte herriko ikastetxeetako LH, DBH eta Batxilergoko ikasleekin. Hala, **Galuha** elkartekoek Sahararren kanpamenduetako eguneroko bizitza nolakoa den azaldu dute, **Trauti** elkartekoak elbarrituen eguneroko bizitzaz jardun dute, mugikortasunari lotuta, **Elkar Zainduz** taldekoak doluz mintzatu dira, **Hotz-Oñati** elkartekoek errefuxiatuez eta boluntarioriaz, **Erei** taldekoak migrazioaz eta kulturen arteko elkarbizitzaz, eta **Inurriak** elkartekoak minbiziak, ikuspegi kolektibotik. Horiez gain, **Laura Yamategik** eta **Maria Collarink** herri indigenen erresistentziari buruzko solasaldia eskaini dute. Hezkuntza ez-araututan ere tailer ezberdinak egin dituzte. Hala, **Auzoko**-n 'Auzoko ere guztiontzako Oñati egiten ari da' telebista saioa egin dute, eta **Txipistin** zerbitzuan eskulanak eta ginkana egin dituzte.

Herriko txoko guztietara iritsi nahi?

Jarri zure iragarkia aldizkarian

[publi@onati.eus](mailto:publi@onati.eus)

 **Mekalki**  
S. Coop. mekanizatuak

Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | [www.mekalki.es](http://www.mekalki.es)



## 'Bizipoza Eskola' MURALA

*Bizipoza Eskola* ekimena borobiltzeko mural erraldoia (70m<sup>2</sup>) margotu dute Eltzia eraikinaren atzealdean, *Pumptrack* gunera ematen duen horman, hitzaldi eta tailer ezberdinen ondoren herriko ikasleek egindako hausnarketak jaso eta irudikatuz. Guztiontzako Oñati aldarrikatzen duen murala da, Bizipoza Eskola ekimenean parte hartu duten herriko eragileek gorpuzten dituzten errealitateak, hitzaldietan ikasleek egindako gogoetak eta ekarpenak, eta hezkuntza ez arautuko zerbitzuetan antolatu diren tailerretan jasotakoak oinarri. Eltzia fatxada nagusiko murala margotu zuen enpresa berak egin du mural hau ere. Apirilean zehar margotu dute eta maiatzaren 6an aurkeztu dute jendaurrean.

## Lankidetzeta hitzarmena sinatu dute Udalak eta Bizipoza elkarteak

Oñatiko udala 'OinHerri' Herri Hezitzaileen Sareko kide da 2020az geroztik. Sare horren filosofiaren oinarriak dira, besteak beste, haurren parte-hartzea eta erabakitze ahalmena, aisia hezitzaile eta euskalduna, aniztasuna, parekidetasuna, ingurumenarekiko errespetua, komunitate sarea eta auzolana. Beraz, ikusirik 'Bizipoza Eskola' ekimena bat datorrela helburu horiekin, Udalak Bizipoza elkartearekin lankidetzeta hitzarmena sinatzea erabaki du. Hitzarmenaren arabera, Udalak bere gain hartu du Eltzia eraikineko mural erraldoia diseinatu eta margotzeko gastua (11.858€).

Asier Lauzurika Arrondo udaleko Hezkuntza batzordeburuak *Bizipoza Eskolaren* ekarpenean jarri du azpimarra: "*Bizipoza Eskolak* inklusioa eta ohikoak ez diren izaera bereziko bestelako gaiak lantzeko aukera eskaintzen die hezkuntza formaleko zein ez formaleko espazioei, eta, era berean, inklusioaren alde ari diren herriko eragileak ikusarazten eta ezagutarazten ditu. Dinamika interesgarri baten bidez ekarpen esanguratsua ari da egiten Bizipoza".



Asier Auzurika, udaleko Hezkuntza batzordeko burua, Oñeko Anduaga, Txatxilipurdiko ordezkaria, eta Izaro Elorza, alkatea

Ildo beretsuan mintzatu da Izaro Elorza alkatea ere. "Herri berdinzale batek oinarrian ditu inklusioa eta bidezko ereduak. Horiek barik, ez dago berdintasunik. Jarrera inklusiboa berma dadin bitartekoak eskaini behar dira, eta horretan ari da Bizipoza Eskola. Prebentzioa oso lagungarria da guztientzat izango den mundu bat eraikitzeko. Garrantzitsua da horretan ari diren eragileen lana aitortzea".



**Ingelesko Akademia**  
Listening Speaking Reading Writing

Maite Aiausti Kortabarria  
Irakaslea  
Arantzazuko Ama, 3 behea  
943 53 36 57  
20560 OÑATI (Gipuzkoa)  
4sgoiena@gmail.com  
[www.4sgoiena.com](http://www.4sgoiena.com)

**Gezalaga**  
Margoak

Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | [gezalagamargoak@hotmail.com](mailto:gezalagamargoak@hotmail.com)

## Errekalden auzoko lehen jai batzordeetako kideak omenduko dituzte



**Jaiak antolatzen ez ezik, auzoa aurrera ateratzen egindako lana eskertu nahi diete**

Gaurko eta lehen jai batzordeetako kideetako batzuk elkarrekin

Errekaldeko jaiak noiz hasi ziren ezin izan dugu zehatz-mehatz zehaztu; 1978an ospatu zirela badakigu, baina baliteke urteren bat edo beste lehenago hasi izana. Edozelan ere, artean sortu berria zen Errekalde auzoko gazteentzat gogor lan egiteko urteak ziren. Etxeak eraiki bai, baina kaleko urbanizazioa hankaz gora utzita zegoen, abandonatuta, eta ikusirik ez Udalak ezta erakuntza enpresek ere ez zutela bere gain hartzen, bizilagunak elkartzen hasi eta Oñatiko lehen Auzo Elkargoa eratu zuten ofizialki 1977an.

Lantalde ezberdinetan antolatu ziren: hirigintza edo urbanizazio batzordea, lorezaintzakoa, gas horniketa sareaz arduratzen zena, kultura eta ospakizunen batzordea... Auzokideen erantzuna oso ona izan zen eta, elkarri lagunduz, auzolanean, auzoko espaloiak zolatu zituzten, garajeetarako sarrerak egokitu, berdeguneak txukundu... *Parvulario* edo eskolaurreko eraikina ere egokitu zuten, auzorako lokal sozial eta kultural gisa erabiltzeko.

### AUZOKO JAIAK

Premiazkoenak ziren urbanizazio lanak egin ostean, auzoko jaiak antolatzen ere hasi ziren Errekalden, eta gaurkoek bezalaxe, hasierako urte haietako jaiak ere estimazio handia zuten, auzotarren esanetan; jende asko etortzen zen, bai kaletarrak eta baita kanpotik ere. Orduko



### BALKOIETAN JARTZEKO BANDERAK

*Omenaldiaren harira, aurtengo jai batzordeak logoa berri du, lehen urteetako irudia eta azken urteetako fusionatuz, eta banderak prestatu dituzte logo berriarekin balkoietan zintzilikatzeko. Errekaldeko dendan daude salgai.*

argazkiak ikusi besterik ez dago.

Gainera, Errekalde auzoa beti nabarmendu izan da ekitaldi originalak eta berriak antolatzeagatik: haurrentzako krosa, herri-kirol erakustaldiak -Iñaki Perurena handia ere bertan izan zen-, ardiñen ile-moztaileen erakustaldiak, karate saioak, antzerki saioak, parapente eta aeromodelismo erakustaldiak, haur eta gaztetxoentzako zine emanaldiak...

Adin guztietako jendearentzako jaiak antolatzen saiatzen ziren eta, hala, igan-

deetan auzoko nagusiak izaten ziren protagonista. Auzoko etxeetan prestatutako pintxo osatutako luntxa eskaintzen zitzaizkien, eta zenbait urtetan, meza ere ospatu zuten auzoko plazatxoan –*misa de campaña* esaten ziotena–, parrokoaren hasierako eragozpenak eragozpen, eta asko tematu ondoren.

Auzoko jaiak ez ezik, Inauteriak ere ospakizun bereziak antolatzen zituzten, eta baita Olentzeroren kalejira eta gaztaina-janak ere, besteak beste.

### OMENALDIA

1990eko hamarraldiaren hasieran jaiak antolatzeari utzi zioten, harik eta 2003an gazte belaunaldi berriek berreskuratu zituzten arte, eta nola gainera! Ikusi besterik ez dago azken urteetan antolatu izan dituzten kontzertuen maila.

Baina gaur egungo jaien hazia 70eko hamarkadan dago, eta, horregatik, aurten omenalditxo egingo diete garai hartako antolatzaileei, jaiak antolatzen ez ezik, auzoa aurrera ateratzen egin zuten lana eskertzeko. Maiatzaren 30ean izango da. Sagardo dastaketa bat egongo da eguerdi partean, argazki zaharren erakusketa bat ere bai, eta ekitaldi nagusia auzo-bazkariaren ostean izango da, opari-oroigarrien banaketarekin eta zenbait sorpresarekin. Omenaldi xumea izango da, baina bihotzez egindakoa, auzotarrak batu eta kohesionatzeko egindako lan guztiaren aitortza gisa.



Errekalde auzoa, 1970eko hamarkada hasieran



Auzotarrak, heldu eta gazte, auzolanean, espaloiak zolatzten eta berdeguneak txukuntzen



Errekaldeko Mus txapelketarako irabazleak. Urte hartako kartelean *Irrintzi* eta *Nekez* taldeen erromeriak iragartzen dira, besteak beste



Iñaki Perurena harri-jasotzen



Ile-moztaileak lanean



Karate erakustaldia



Auzotarrak lanean sukaldean



Nagusien eguneko dantza erakustaldia



Inauterietan mozorrotuta

carpintería  
**GARIBAI**  
aroztegia

Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com  
[www.garibai-aroztegia.com](http://www.garibai-aroztegia.com)

JUANJE MARGOAK  
627 818 247



## Segurtasunari lehenetsua ematea eskatu dute Garayko langileek

*Hijos de Juan de Garay* lantegiko enpresa komiteak deituta, bertako langileek elkarretaratzea egin zuten apirilaren 21ean, segurtasuna lehenetsi eta istripuak saihesteko neurriak har ditzan enpresari eskatzeko. Enpresaren beste alor batzuk hobetzeko inbertsioak egiten diren bezala, lan segurtasunean ere inbertitzea eskatzen dute langileek. Ekoizpenaren eta segurtasunaren artean aukeratu gabe, biak gauzatu behar direla diote langileen ordezkariak, eta gaineratu dute, segurtasun neurriak aurrez hartu behar direla, istripuak gertatu baino lehen. Enpresak, baina, arlo honetan erritmo geldoa daramala salatu dute eta neurriak berehala hartu behar direla azpimarratu.

## Udal langileek greba iragarri dute maiatzaren 14a eta ekainaren 4rako

2010etik iraungita dagoen hitzarmena negoziatzea eskatzen ari dira udal langileak. EUDEL osatzen duten EAJ, EH Bildu eta PSEek borondate politikorik agertzen ez dutela ikusirik, negoziazioa udal mailara eramaten saiatu dira sindikatuak, eta Oñatin ere hala egin dute, baina udaleko arduradunen aldetik ez da negoziatzeko asmorik agertu, erreferentzia EUDEL dela argudiatuta. Horregatik, udal langileak 15 minutuko elkarretaratzeak egiten hasi ziren otsailean, eta orain mobilizazioak gogortzea erabaki dute. Hala, 2 orduko lanuztea egin zuten apirilaren 23an, eta bi greba egun iragarri dituzte maiatzaren 14rako eta ekainaren.



## Enpresagintza fakultateko emakume batek jasandako eraso sexuala salatu dute

Apirilaren 20an Enpresagintza fakultateko aparkalekuan emakume batek jasandako eraso sexuala salatzeko elkarretaratzea egin zuten Oñatiko campusean, Mondragon Unibertsitateko errektorea eta Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate arloko sailburua bertan zirela. Oñatiko udal ordezkariak ere bat egin zuten. Bargastak talde feministak deituta, beste elkarretaratze bat egin zen herriko plazan. Erasoaren aurkako gaitzespen eta arbuio irmoak adierazteaz gain, erasoaren jasan zuen emakumeari babesa eta laguntza eskaini, eta indarkeria matxistari aurre eginez giza duintasuna eta benetako berdintasuna bultzatzeko konpromisoa adierazi zuten.

 **ARKITEKTURA**

Baserriak \* Teilatuak \* Fatxadak \* Igogailuak

Bidebarrieta 13. Oñati \* tel: 677 31 20 57  
amaia@aiarkitektura.com

 **ARRIZABALAGA**  
Aroztegia

 **PAKITA**  
Altzariak

Berezao Ind. 10 Tel. 943 78 14 64 Sta. Marina, 6 Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

# Gure Zirkua

## Oñatin egongo da maiatzaren 15etik 31ra

Zirkoaren magia gozatzeko aukera izango dugu maiatzean, aspaldiko partez. Euskal Herrian sortu eta bertako artistez osatutako Gure Zirkuak 9. denboraldia jarri du martxan –Olaberriaren estreinatutako dute– eta ondoren Oñatin ikusi eta gozatu ahal izango dugu. Olaiturrin ipiniko dute karpa eta bertan egongo dira maiatzaren 15etik 31ra, guztira 11 emanaldi eskainiz. Sarrerak (15€) salgai daude jada [gurezirkua.eus](http://gurezirkua.eus) webgunean. Ez galdu aukera. Pailazo, akrobata, mago, malabarista, kontorsionista, aireko akrobata, trapezista, bihurrikari, ekilibrista... talde bikainak beren lanbidea, edertasuna eta ausardia partekatu nahi dute herri osoarekin, adin guztietako herri-tarrek. Harritu egingo gaituzte ezinezkotik hurbil dauden ariketa ikusgarriekin, eta irribarre egin araziko digute, zoriontasuna eraginez.



### Olaiturrin ipiniko dute karpa eta 11 emanaldi eskainiko dituzte



### HAMAIKA EMANALDI

- Maiatzak 15, ostirala: 19:00
- Maiatzak 16, larunbata: 12:00
- Maiatzak 17, igandea: 12:00 eta 17:00
- Maiatzak 22, ostirala: 19:00
- Maiatzak 23, larunbata: 18:00
- Maiatzak 24, igandea: 12:00 eta 17:00
- Maiatzak 30, larunbata: 18:00
- Maiatzak 31, igandea: 12:00 eta 17:00

### SARRERAK:

[www.gurezirkua.eus](http://www.gurezirkua.eus)

## MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA  
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA, KOOP. E.

### Goi Mailako Heziketa Zikloak

- | Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- | Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- | Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa
- | Mekatronika Industriala
- | Automatizazio eta Robotika Industriala
- | Energia Berriztagarriak **BERRIA**

### Espezializazio ikastaroa

- | Industria Mantentzearen Digitalizazioa
- | Eragiketa-teknologiaren Inguruneetako Zibersegurtasuna

## Oñati gestio heziketa

### Goi Mailako Heziketa Zikloak

- | Administrazio eta Finantzak
- | Marketin eta Publizitatea **BERRIA**

## AURREMATRIKULA

Maiatzaren  
4tik 22ra



MGEP: 664 298 683  
OÑATI GESTIO HEZIKETA: 943 7180 09



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorleraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

**Bidaurreta Dorrea z/g**  
**20560 OÑATI**  
**Tel.: 943 78 20 72**  
**kontzejupetik@onati.eus**



Oñatiko Udala



Foru Aldundia

## KONTZEJUPETIK

### Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

### Zuzendaria:

Iñigo Arregi

### Publizitatea:

Iñigo Arregi

### Diseinua eta Maketazioa:

Iñigo Arregi eta Jabier Erostarbe (azala)

### Kolaboratzaileak:

Roberto Altuna, Gaztelekua Natur Eskola eta udaleko Berdintasun saila

### Inprimategia:

Gertu

### Tirada:

5.500 ale

### Lege gordailua:

SS-357/91

### Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik

## Errolda eta EAJko bozeramailearen informazio ez zuzenaz

**Lierni Altube, Oñatiko udaleko Ongizate batzordeko burua**

Errolda eta EAJko bozeramailearen informazio ez zuzenaz Amaia Erostarbe Letamendi EAJko zerrendaburu eta bozeramaileak Goienako Nire ustez iritzi atalaren bidez beste behin helarazitako informazio ez zuzena argitu beharrean nago. Zoritxarrez, oraingoan, errolda soziala erabili du joko politikorako. Gai delikatua da, eta zaila da ulertzea oposizioa egiteko erabiltzeko erabakia, sentsibilitate eta ardura ikuspegitik, bai, behintzat.

Ez naiz diskurtso politikoetan sartuko, hasteko, EAJko bozeramaileak ondo dakien bezala, gai eta prozedura administratiboa delako. Artean ere, kontrakoa eman du aditzera, eta, larriagoa dena: erabaki politikoak errolda soziala ematen duela ulertarazi gura izan duenean, esperantza faltsuak eman dizkie zenbaiti. Oso larria da.

Asko kezkatu nauen zerbait ere ekarri nahi nuke lerro hauetara. Gaia bera erabili bakarrik ez; gezurra ere esan du. Hauxe da artikuluan herritarrei helarazi dien mezua: "EH Bilduren Udal Gobernuak ez dabil 'errolda soziala' erregularizatzen. Udal Gobernuak muzin egin dio Eudelen gomendioa jarraitzeari?". Artikulua argitaratu zuenean bazekien esaten ari zen hori gezurra zela. Zergatik?

Artikulua martxoaren bukaeran argitaratu zuelako, eta, otsailetik (gutxienez), jakin bazekielako azken urteotan errolda sozialak

egin direla, eta, beraz, betetzen ari ginela Eudelek 2025ean adosturiko irizpide eta jarraibideak (adostu aurretik ere bai, izan ere, 2023tik dugu martxan errolda eskaera guztiak aztertzeko eta ebazteko barne prozedura).

Zehatz esanda, EAJko bozeramaileak, Ongizate batzordeko kide ere badenak, espresuki galdetu zuen errolda sozialaren inguruan otsaileko batzordean. Argi azaldu zitzaion guztia, politikoki zein teknikoki. Informazio guztia zuen, artikulua irakurrita kontrakoa dirudien arren. Alegia: jakin bazekien Udala badabilela 'errolda soziala' erregularizatzen; eta, jakin bazekien, ez diogula inolaz ere muzin egin Eudelen gomendioari.

### >> OHAR ETA DEIALDIAK <<

## MUS txapelketa

Arrano elkarteko IV. Mus txapelketa. **Maiatzaren 15ean** (22:00). Izen-ematea, bikoteko 30€, egunean bertan (21:30-22:00). Zortzi erregetara. **Sariak:** **1.** %50 eta txapelak; **2.** %25 eta bi botila ardo; **3.** %15 eta bi botila sagardo; **4.** %10. Bazkide den lehen bikote sailkatuentzat: gazta bat.

## Iturria konpondu beharrean

San Lorentzoko bizilagun batek jakinarazi digunez, autobus geltoki ondoko iturria konpondu beharrean dago. Uraren hustubidea trabatuta dago, nonbait, eta, ondorioz, putzua sortzen da bertan. Dagokionari, esku-hartu dezan eskatzen zaio.



IGOTZ

Zerbitzuak

**Igotz Ugarte Larreta**  
Mug.: 676257120 • 639658046  
Email: igotzugarte92@gmail.com

**Oliba olio birjina  
estra ekologikoa**  
Aceite oliva virgen  
extra ecológico

**15 l.**  
**105 €**

Eskaera egin eta etxera banatzen da



Urko Egaña Calderón

BERTSO SORTA

# 'Bekaiztiaren bekaizkeria'

Doinua: Gizakiak harri bat

**1.-** Zer da bekaizkeria?  
Nor da bekaiztia?  
Nor ote da gaizkile?  
Ta zer da gaizkia?  
Bertsoz bete dut nere bildurren saskia egin nahian gizarte honen marrazkia, ta hau da atera den azken argazkia. (bis)

**2.-** Bekaiztia ezin da iritsi inora, bekaizkeria aldiz doa edonora!  
Adibidez azken hau bihurtzen da droga, ta iristen denean lagunaren ondora etsaien amorrua baino gehiago da. (bis).

**3.-** Bekaiztia alertan jarri ohi du zernahik beti dagoelako mintzen duen zerbait!  
Ta niri maiz barrena korapilatzen zait inguruan ikusi dudalako zenbait norbait zapalduz soilik sentitzea norbait. (bis)

**4.-** Dirudien ezin dugu norberaren garenarekin egon ados ta pozarren. Ez nago oso ziur piskat poztearren besteen baratzeke uzta hobearen bildurra sentitzea askoz hobea den! (bis)

**5.-** Ondo hitzegitea bihurtu da tabu ta gaizki jardutea ondo daramagu!  
Norbaitek gure bizkar hitzegiten badu ziurtasun bat behintzat geurekin daukagu, hari aurre hartuta bizi garelara gu! (bis)

**6.-** Zoriontasunean bizi nahi duenak zoriontasunean utz ditzala denak, hots, hala daudenak ta hala ez daudenak ta besteei segika ibili ohi denak bere egin beharko ditu bere penak. (bis)

**7.-** Bizitzeko gauz eder asko da bizitzan ta askotan ez dakit zer nola gabiltzan!  
Norbanakoak bere nahiak bete ditzan ez da posible batzuk uste duten gisan, bekaiztia izanik zoriontsu izan! (bis)

**8.-** Kanpo faktore asko dauzkagu aukeran indartsu eragiten dutenak guregan!  
Bildur naiz kontrolatzen gaituen sisteman, oxidoak burnia jaten duen eran bekaizkeriak janda hilko ez al geran. (bis)

**Lan bide HEZIKETA**

**Aurrematrikula**

**arizmendi ikastola PRO**

**Maiatzaren 4tik 22ra**

**Izena eman!**

[www.arizmendi.eus](http://www.arizmendi.eus)

**IIASIERAKO lanbide heziketa**

- Sukaldaritza
- Etxebizitzaren mantentze lanak
- Informatika eta komunikazioetarako oinarriko profesionalak

**ERDI mailako lanbide heziketa**

- Erizaintzako zaintza osagarriak
- Mikroinformatika sistemak eta sareak
- Osasun larrialdiak

**GOI mailako lanbide heziketa**

- Gizarte eta kirol animazioaren irakaskuntza



## **UDABERRIKO OPORRAK HAUR ETA GAZTERIA ZERBITZUETAN**

Primeran joan da dena aurtengo udaberriko oporraldian, Txaloka Udal Ludotekan adibidez ekintza berezi eta anitzak gauzatu ditugu. Besteak beste, Ludotxef, telazko eskulanak, filma, buztingintza tailerra, eskuetako xaboiak sortzeko saioa eta Gasteizera egindako irteera izan dira protagonista. Primeran ibili gara, giro ezin hobean eta elkarren artean gozatzuz! Esperientzia aberasgarria izan da, bai haur zein hezitzaileentzat.

Bestalde, eta kasu honetan ere Txaloka Udal Ludotekak antolatuta, baina izen-emateek izan duten arrakastagatik Gaztelekuko kuboan burutuak, apirilaren 14an eta 28an, Nekane Odriozola psikomotrizistaren eskutik, 0-6 urte bitarteko haurren gurasoei zuzendutako bi saio ere izan ditugu. Lehenengoan haurren jolasak duen garrantzia, eta bigarrean, berriz, agresibitatearen gaia jorratu zen. Saiok arrakastatsuak izateaz gain oso aberasgarriak izan zirela azpimarratu beharra dago.

Ludotekatik beraz, eskerrak eman nahi dizkizuegu modu batean edo bestean jarduera hauetan parte hartu duzuen guztioi: antolatzen lagundu duzuen pertsona, familia eta, nola ez, parte hartu duzuen haur eta nagusi guztioi. Zuen ekarpenik gabe ezinezkoa izango litzateke hau guztia!

Gaztelekuari dagokionean ere, Kubo zein Topalekuko erabiltzaileentzat aukera zabala izan dugu oporraldi honetan. Donostiako Scape-room-era, Bizkaia Park Abenturara, Gasteizko Karting-era... irteerak egin ditugu. eta plan hauetaz gain talde txikiekin, mendira eta saskibaloian jolastera joan gara, Gaztelekuan musika grabatu dugu, Gaztelekuen arteko Futbol topaketan hartu dugu parte, Elgoibar, Deba eta Bergarako gazteekin batera... ez da ondo pasatzeko aukerarik falta izan. Idatzi honekin batera dauden argazkiak ikusi besterik ez dago.

Ikasturteko azken hiru-hilabetekoan sartu gara, eta eguraldi onaren laguntzaz udarako oporraldian pentsatzen hasiak gara (udalekuak, irteerak, ...), beraz, prest gaude zuen proposamenak jaso eta burutuko ditugun horiei elkarrekin forma ematen hasteko!  
Milesker eta laster arte!



### **» UDALEKO GAZTERIA BATZORDEAREN ZERBITZU BERRIA**

## **Gazte aholkularitza Psikologikoa**

- 16 eta 30 urte arteko gazteei zuzendutako zerbitzua. Dohainik.
- San Juan kaleko 5 zenbakidun lokalean
- Ostegunero, 16:00 -18:00 (aurrez txanda hartuta)
- 688 815 351 / [gazteaholkularitza@onati.eus](mailto:gazteaholkularitza@onati.eus)



San Juan  
kaleko 5  
zenbakiko  
lokalean  
ematen da  
zerbitzua

## Udaberriko doinuak

Udaberria iristearekin batera naturak bere doinua pizten du. Goizeko lehen argiekin, basoak eta landa eremuak txorien kantuz betetzen dira. Sarri oharkabean pasatzen zaigun soinu hori, naturaren adierazpen aberatsenetakoa da.

Txorien kantua ez da soilik soinu atsegin bat. Hegaztien kantuen bidez elkarri "hitz egiten" diote: lurraldea markatzeko, bikotekidea erakartzeko edota arriskuren batengatik elkar ohartarazteko erabiltzen dute. Udaberrian, batez ere, kantua biziagoa da, garai horretan hasten baitira ugalketa garaiko jarduerak martxan.

Egunsentian naturara irteten bagara, goizeko korua deitzen den fenomeno entzun dezakegu: txori espezie askok batera kantatzen duten une berezia. Momentu horretan basoa benetako kontzertu areto bihurtzen da. Lasai, baina, gautxori garenok ere badugu antzeko kontzertuaz gozatzeko aukera: ilunabarrean. Izan ere, eguzkiaren azken izpiekin "paseriformeak", guretzako txori txikiak, berriz aktibatzen dira.

Oñatin aukera paregabea dugu kantuak entzuteko; basoak, erreka bazterrak eta landa eremuak txori espezie askoren bizileku dira-eta. Askotan, nahikoa da pixka bat gelditu eta adi egotea, naturak eskaintzen duen soinu-mundua deskubritzeko. Nahiz eta oharkabean pasa, maiz ditugu lagun hainbat espezie: txantxangorria, bere kantu gozo eta argiarekin; zozoa, doinu sakon eta melodikoekin; txepetxa, basoetako txori txiki baina ahots indartsukoa; edo kaskabeltza, zuhaitzen artean etengabe mugitzen den kantari bizia. Pixkanaka-pixkanaka, entzuten ohitzen bagara, espezie bakoitzaren kantua bereizten ere ikas dezakegu.



Txepetxa



Txantxangorria

### HERRITARRENTZAKO MAIATZEKO EGITARAUA

**TXORIEN KANTUEN IKASTAROA** *Maiatzak 12, asteartea*

**Ibai Ugarteren** eskutik. Natur Eskolan, 18:00-20:00.

Plaza mugatuak. Izena ematea beharrezkoa da, maiatzaren 8a baino lehen: [natureskola@yahoo.es](mailto:natureskola@yahoo.es) / 943 71 64 04 telefonora deituta.



**BASO-BAINUA ARANTZAZUN (\*)** *Maiatzak 24, igandea*

**Miriam Martinez de Egiduaren** eskutik. Arantzazun, 10:00etan.

Plaza mugatuak. Izena ematea beharrezkoa da, maiatzaren 22a baino lehen: [natureskola@yahoo.es](mailto:natureskola@yahoo.es) / 943 71 64 04 telefonora deituta.

(\*) Apirilko baso-bainuen saioak izandako arrakasta ikusita, bigarren saio bat antolatu du Natur Eskolak.



# Hawaiiko Ironmanerako txartela lortu du Mikel Ugartek profesionalen kategorian

> Munduko Ironman txapelketa jokatu da bertan urriaren 10ean > Distantzia luzeko munduko 50 triatletarik onenak lehiatuko dira bertan

Hitzik gabe geratzen ari gara Mikel Ugarte Ramos triatleta oñatiarraren lorpenak kalifikatzeko garaian. Ikaragarria egin du orain ere. Apirilaren 19an jokatu zen Hegoafrikako Ironmanean laugarren sailkatu zen eta, horrenbestez, urriaren 10ean Hawaiiin jokatu den munduko Ironman txapelketarako sailkatu da, profesionalen mailan. Hegoafrikatik iritsi berritan izan gara berarekin.

## Zer sentitzen da Hawaiiako slot edo txartela lortuta?

Neke handia, baina, batez ere, poza eta lasaitasun handia nire buruarentzat. Lan asko dago honen atzean, gauza asko alde batera utzi beharra entrenatu ahal izateko, eta, askotan, bueltan ez da saririk etortzen, baina oraingoan jaso dut egindako lan guztiaren ordaina, eta oso pozik nago.

## Zer suposatzen du zuretzat prestigio mailan edo ekonomikoki Hawaiiako sailkatu izanak?

Nire kirol ibilbidean beste salto bat ematea dela uste dut, batez ere buruarentzat. Triatloi munduan hasi nintzenean Eneko Llanos edo Gurutze Frades bezalako triatletak, Hawaiiako 'pro' mailako txapelketan parte hartzen zutenak nire idoloak ziren, eta orain neure burua klub *selekt*o horretan ikustea handia da niretako.

Ekonomikoki, oraingoz behintzat, lehen bezala jarraitzen dut; lehen ez nintzen profesionala –nahiz eta profesional mailan lehiatzen naizen–, baina ni ez naiz hortik bizi, nik nire lana daukat, prestatzaile fisikoa naiz, eta, gaur gaurkoz, triatloitik ez dut ezertxo ere jasotzen, eta hori ere *handicap* bat da, jakina, nire lehiakide gehienak triatleta profesionalak direlako. Espero dut Hawaiiako txartela lortu izana lagungarria izatea babesleren bat aurkitzeko, eskaparate oso ona baita edozein marka edo enpresentzako. Gainera, ez dugu kopuru handirik eskatzen.

## Hegoafrikako ironmana oso gogorra omen da. Zergatik aukeratu zenuen proba hori?

Gogorra da, bai, bero egiten duelako, haizeak zakar jotzen duelako, eta bizikleta tarterako asfalto egoera txarrean dagoelako. Baina, azken batean, Hawaiiako sailkapena zenbat eta azkarren lortu hobe da munduko txapelketa hobeto prestatu ahal izateko, eta Hegoafrikakoa gaizki atera izan balitz, maiatza edo ekainean beste ironman batean saiatzeko aukera daukazu. Zorionez apirilean bete dut helburua, eta orain Hawaiiakoa ondo prestatzeko aukera daukat.

## Nola diren gauzak, beste ironman batzuetan esker txarrekoa gertatu zaizun maratoian egindako lan bikainari esker lortu duzu, hain handi batean, Hawaiiako txartela.

Bai denboraldi hasierako helburu nagusietako bat maratoiko errendimendua hobetzea zen, beste ironman batzuetan txakalaldiak eduki izan ditudalako. Lan handia egin dut horretan eta, zorionez, ondo atera da. Itsasotik 7. atera nintzen, lehenengoarengandik 4:30era; bizikletako zatia 12. postuan amaitu nuen, 16 minutura, baina maratoian bigarren denbora onena (2:39:22) –orain arteko nire markarik onena– 4. posturaino aurreratu ahal izan nuen –Hawaiiako 4 slot edo txartel zeuden jokoan Hegoafrikan–. ■



## HEGOAFRIKAKO IRONMANEKO DENBORAK

> IGERIKETA (3,8 km.)  
**00:52:24**

> BIZIKLETA (180 km.)  
**04:23:20**

> MARATOIA (42 km.)  
**02:39:22**

GUZTIRA **07:59:01**



Mikel Ugarte  
Hawaiiako  
slot-a eskutan

# Ibai Angulo eta Ainara Uribarri nagusi Aloñako Igoeran

Eguraldia eta zaleen berotasuna lagun, ederra borobila izan da aurtengo Aloñako Igoera, 21.a. Gizonezkoetan lehia estua egon da, minutu baten barruan sartu baitira aurreneko hirurak: **Ibai Angulo** (02:08:02), **Imanol Goñi** (02:08:45) eta **Irazu Aranburu** (02:08:52). Emakumezkoetan etxean geratu da txapela. **Ainara Uribarri** (02:34:55) nagusi izan da hasi eta buka, eta zazpi minututik gora atera dizkie podiuma osatu duten **Lara Estebanez** (02:40:48) eta **Adirane Peñagarikanori** (02:41:48). Mutiletan **Xabier Urbina** (02:26:11) aurten ere lehen oñatiarra. Artzanburutik helmugarainoko jaitsiera azkarren egin duten **Imanol Goñi** (0:36:41) eta **Lara Estebanez** (0:45:08) izan da 'Sagas' saria. Zorionak antolatzaile eta laguntzaile talde osoari. •



## ULMAk eta Aloña Mendik lau urterako lankidetza adostu dute

ULMA Tadea eta Aloña Mendiren –bereziki txirrindularitza sailaren– arteko elkarlana aspalditik dator, baina, orain, lankidetza hori kirol elkarte osora zabaltzea adostu dute, lau urterako hitzarmen markoa adostuta. ULMAk Oñatirekin duen konpromiso sendoaren erakusgarri dela adierazi du Ibon Calvok, kooperatiba taldeko presidentea. "Kirolaren bidez komunitatearen kohesioa, bizi-ohitura osasungarriak eta lankidetza, ahalegina eta inklusioa bezalako balioak sustatzen ditugu, eta horrek islatzen du oso garbi ULMAren eredua". Anton Inzak eskertu egin du akordioa, Aloña Mendiko sail ezberdinen proiektuak sendotzen lagunduko duela azpimarratuz.

## Enzo Elizburu irabazle Seguran

**TXIRRINDULARITZA** Ulma-Aloña Mendi taldeko Enzo Elizburuk garaipena lortu zuen maiatzaren 2an jokatu zen Segurako proban Kadete mailan. Bestalde, IX. Eibarres Trofeoan taldekako garaipena lortu zuten kadeteek.



## Torreazoko kroserako izen-ematea zabalik

**KROSA** Zabalik dago, jada, ekainaren 28an jokatu den 27. Torreazoko Kroserako izen-ematea [www.herrikrosa.eus](http://www.herrikrosa.eus) atarian. Ekainaren 26ra arte –gaueko 22:00ak arte– 12€ balioko du, eta 18€, hortik aurrera, dortsalik geratzen bada, ekainaren 28ko goizeko 9:00ak arte.

## MENDI IRTEERA MAIATZAK 24

### ALAITZ MENDIKATEA

Txanburu (1.136 m.) eta Elomendi (1.295 m.)

Iruñea eta Tafalla artean dagoen Alaitz mendikatean egingo da Aloña Mendik maiatzerako antolatu duen irteera. Otano herrixan abiatuta, Txanburu tontorrera igo, eta haizeerrota artean pittin bat jaitsi ostean, Elomendirako



aldapa tentea igoko dute –kate metaliko bat egongo da, segurtasuna bermatzeko–. Monrealen amaituko da ibilaldia (14km. / +1.100m.). Irteera, goizeko 7etan, postetxe parean. Izen-ematea (10€) maiatzaren 14tik 21era ([alonomendi@gmail.com](mailto:alonomendi@gmail.com)) autobusa bete arte (50 leku).



## Ezin finala irabazi, baina harro, hala ere

**ESKUBALOIA** Lan bikaina egin du Construcciones Ugarte-Aloña Mendi senior mailako eskubaloia taldeak. Euskal Ligan 4. amaitu ostean, Zilarrezko Ohorezko Mailara igotzeko play-offa jokatu dute Berangon. Finalerdian nagusi izan ziren Orioren aurka (21-17), baina finalean etxeokak nagusitu ziren 25-18.

## Zapatuan lor dezake igoera Aloña Mendik

**FUTBOLA** Larunbatean, maiatzak 9, Legazpiko Irene Paredes futbol zelaian (17:00) Ilintxaren aurkako partidua irabazten badu, Ohorezko Erregionalera igotzeko txartela lortuko du Unai Garaik zuzentzen duen taldeak.

## HERRIKO FUTBOL TXAPELKETA

# Kelekona eta Morekanbe TXAPELDUN

Apirilaren 11n jokatu ziren Herriko Futbol Txapelketako finalak Azkoagainen, euripean, baina giro ederrean, hala ere. Final nagusian, ligakoan, **Kelekona**k lortu zuen garaipena. Partidua hutsean amaitu ostean, penaltietan (6-5) hartu zuen mendean **Shatoken Moïra** iazko txapelduna. Jon Anduagak jaso zuen finaleko jokalaria onenaren saria.

Kopako finalean **Morekanbe** nagusitu zen (5-1) **Iturritxo**-ren aurka, eta Oier Altzelairentzat izan zen jokalaria onenaren saria.

Denboraldi osoko sariak ere banatu ziren. Hala, golegile onenarena **Markel Ugartek** (Hangover) jaso zuen, eta gol gutxien jasotako taldearena **Frakas Bravasentzat** izan zen. Jokalari beteranoenaren saria Iturritxo taldeko **Manu Garciak** jaso zuen, eta **losu Cambesek** ere sari berezia jaso zuen epaile lanetan egindako lan bikaina eskertzeko.



Goian Kelekona eta behean Morekanbe taldekoak garaipena ospatzen



*Epaileari eskertza*



*Golegile onena*



*Atezain onena*



*Jokalari beteranoenaren saria*

● OÑABIKE  
est. 95

## Panpinen pijama-festa egingo dute udal liburutegian

Haurrengan irakurzaletasuna sustatzea helburu duen Panpinen Pijama-Festa antolatu du udal liburutegiak, 3 eta 5 urte arteko haurrei zuzenduta. Hurrek beren gustuko panpina eramango dute Haur Liburutegira, gaua bertan igaro dezaten festa giroan: liburuak irakurriko dituzte, abenturak kontatu, lagun berriak ezagutu, eta liburuen magian murgilduta, palomitak jan eta, azkenean, goxo-goxo egingo dute lo bata bestearen ondoan.

Panpinen Pijama-Festa (*Stuffed Animal Sleepover Party*) proiektua 2007an sortu zen Pensylvaniako (AEB) liburutegi batean, eta umeengan duen eragin positiboa ikusita, munduan zehar zabalduz joan da. Ume gehienek, beraien panpinak irakurtzen ikustean, liburu horiek irakurtzeko eta liburutegira inguratzeko arreta eta gogoia adierazi dute.

Laugarren aldiz ospatuko da pijama-festa Oñatiko udal liburutegian. **Maiatzaren 21ean** (16:30etatik aurrera) jasoko dituzte panpinak Haur Liburutegian, eta hurrengo egunean, **maiatzaren 22an**, panpinaren bila joango dira familiak, eta panpin bakoitzak gauean aukeratu duen liburua eramango dute maileguan. Animatu eta eman eraman zuen gustuko panpina liburutegira!



## Mantxola eta Egaña sarituak



Sara Mantxolak eta Urko Egaña sari bana jaso dute Iparragirre Literatur sarietan. Mantxolak lehen saria lortu du euskarazko poesia atalean 'Sentimenduaren metamorfosia' lanari esker, eta Egaña lehen saria bertso paperen atalean, 'Bekaiztiaren bekaizkeria' lanari esker.

## Ganbara Faktoriaren bazkide-kontzertua maiatzaren 17an

Ganbara Faktoriak maiatzaren 17an (parrokian, 19:00) eskainiko du bazkideei eskainitako kontzertua. 'Atzera begira' izenburupean, Ganbara Faktoriaren azken 20 urteetako ibilbide musikala ekarriko dute gogora, faktoriako taldeentzat sortu eta enkargaturiko hainbat obra interpretatuz. Bere ibilbidean zehar, Ganbara Faktoriak 60 bat obra enkargatu dizkie konpositore ezberdinei, euskal sorkuntza musikari ekarpen esanguratsua eginez eta abesbatzendako erreperitorioa aberastuz. Kontzertu honetan horietako batzuk entzuteko aukera egongo da, Faktoriako hiru taldeen eskutik: Ganbara Txiki, Hots eta Ganbara Abesbatza. Aitor Biain Bidartek zuzenduko du emanaldia, eta Amaia Zipitria pianistaren laguntza izango dute.



## Haur eta Gazte abesbatzen topaketa Oñatin egingo da maiatzaren 9an



Musikaren bidez elkar ezagutu eta esperientziak partekatzea da Oñatin egingo den haur eta gazte abesbatzen topaketaren helburua. Maiatzaren 9an (Santa Ana antozkian, 19:00etan) izango da, eta Oñatiko taldeez gain (Ganbara Txiki, Kantu Tailerra eta Ikastetxeak Kantari proiektuko taldeak), **Legazpiko Doinua** musika eskolako abesbatzak –Mirengu Plazaolak zuzendua– eta **Andoingo** musika eskolako haur abesbatzak –Katrin Iturraldek zuzendua– ere parte hartuko dute. Talde bakoitzak hiru kanta abestuko ditu, eta saioa borobiltzeko, denek batera beste bi abesti kantatuko dituzte. Haur eta gazte guztiek kamiseta bana eta merienda jasoko dute opari. Sarrerak (5€) [www.oñati.eus](http://www.oñati.eus) eta Txokolatexan.

## GANBARA ARRASATEKO UDABERRIKO ZIKLOAN

Ganbara Abesbatzak kontzertua emango du Arrasaten, maiatzaren 17an (San Juan parrokian, 20:00), bertako Udaberriko Zikloaren baitan. 'Vox Arcana: ahots misteriozua' izenburua duen programa eskainiko du, historian zehar ahots koralak espiritueltasuna, barne-sentimenduak eta unibertsaltasuna adierazteko izan duen gaitasuna erakutsiz.

Errenazimenduko polifoniatik gaur egungo musika korallera arteko ibilbidea egingo du Ganbarak garai, hizkuntza eta estilo desberdinetako obrak uztartuz. Pieza bakoitzak ahotsaren dimentsio berezi bat erakusten du: otoitza, kontenplazioa, ospakizuna edo barne gogoeta. Entzulea paisaia sonoro aberats eta sakon batean murgiltzera gonbidatzen duen programa da.



# OÑATIKO 11 BLUES FESTIBALA 2026KO MAIATZAK 15-16 BLUESAREN TAUPADA HEMEN BIZI DA

## Blues musikaren epizentroa izango da Oñati maiatzaren 15 eta 16an

Lau kontzertu, kalejira bat eta soul-tailer didaktikoa antolatu ditu Oñatiko Blues Elkarteak, Udalaren laguntzarekin

Oñatiko Blues Jaialdia bueltan da, iazko lehen edizioak izandako arrakastaren ondoren. "Iazkoa ezin hobe atera zen –taldeen maila, jendearen erantzuna...– eta, beraz, bigarren edizioa antolatzera animatu gara, baina, jakina, 'nola hobetu iazkoa?'; horixe zen aurtengo erronka, eta, egia esan, lortu dugu. Talde oso potenteak ekartzea lortu dugu eta oso oso pozik gaude. Espero dugu herritarren gustukoa izatea eta berriro ere goren mailako blues musikaz gozatzea", azaldu zuen Aitor Perosterenak, Oñatiko Blues Elkarteko kideak, jaialdia aurkezteko prentsaurrekoan.

Halaxe da, bai. Kartela ikusi besterik ez dago: *Emilio Arsuaga & The Mad Reeds*, *The Allnighters*, *Wax & Boogie* eta *Pablo Sanpa*, eta *Noa & The Hell Drinkers*. Euskal Herrian ez ezik, estatu mailan ere bluesaren erreferente diren taldeez zuzenean gozatzeko aukera izango dugu. *Noa & The Hell Drinkers* talde donostiarrak, esaterako, *European Blues Challengea* irabazi zuen duela bi



Iñaki Olalde eta Aitor Perosterena,  
blues jaialdea aurkezten

urte, eta aipagarria da, Noa, abeslaria, Oñatin jaio eta bizi izan zela haurtzaroan, eta ilusio berezia egiten diola sorterrira bueltatzeak, disko berriaren aurkezpen birako lehen emanaldian.

*Wax & Boogie* kataluniarren abeslaria –Ster Wax– izango da jaialdiko beste izarretako bat, 'blues eta soul musikaren dama' bezala ezaguna. Oñatin, gainera, Pablo Sanpa madrildar gitarra-jotzaile handiarekin batera ariko dira. Emilio Arsuagaren izena ere azpimarratu zuen Perosterenak, "estatuko harmonizista

ospetsuenetako bat da madrildarra", eta baita *The Allnighters* gasteiztar zazpiko-tearen soul ukituko *rhythm & blues* bizi eta dantzagarria ere.

Goi mailako blues musikaz gozatzeko aukera izango dugu maiatzaren 15 eta 16an. Kontzertuak Gaztelekuan (21:30) izango dira (sarrera 10€, bi kontzertuetarako bonua 18€). Baina kalean bertan ere blues musikaz gozatzeko aukera egongo da, maiatzaren 16an (13:00etan) *Broken Brothers Brass Band* iruindarrek egingo duten kalejiraren bidez. Jaialdia borobiltzeko, blues-tailer didaktiko bat egongo da *Noa* eta *Ster Wax* handiek gidatuta.

Iñaki Olalde kultura zinegotziak Udalaren babesa –12.000€ko laguntza– azaldu zuen. "Iazkoaren balorazioa oso positiboa izan zen eta egokia iruditzen zaigu herritik sortutako ekimena honi babesa ematea. Alde didaktikoa ere positiboki baloratzen dugu eta kalejira ere begi onez ikusten dugu. Beraz, animatu nahi ditut herritar guztiak parte hartzea".

**Coinbroker**  
EUSKADI

ASEGURU ARTEKARITZA

☎ 943 08 90 06

☎ 688 77 45 31

✉ oinati@coinbroker.eus

📍 Arantzazuko ama 9, behea



► **KONTZERTUAK. MAIATZAK 15, OSTIRALA, GAZTELEKUAN, 21:30**



## Emilio Arsuaga & The Mad Reeds

*Estatuko blues panoramako harmonizista ospetsuenetako bat da Emilio Arsuaga, musikari madrildarra. Bere bandarekin batera, zuzeneko onenetakoa daukate, hegoaldeko uhina duen blues tradizionala jorratuz, Louisianako eta swamp bluesen rock & rollero ukituren batekin.*



## The Allnighters

*80ko hamarkadaren amaieratik 98ra, hamar urtez jardunean egon eta 3 disko grabatu zituen taldea da hau. Etenaldi baten ostean, 2013an inoiz baino indartsuago itzultzen dira eskenatokitara. Beste bi disko grabatu ostean, gorputza mugiaraziko digute beraien soul ukitua duen rhythm & bluesarekin.*



► **KONTZERTUAK. MAIATZAK 16, LARUNBATA, GAZTELEKUAN, 21:30**



## Wax & Boogie eta Pablo Sanpa

*Ster Wax abeslariak eta David Giorcelli piano-jotzaileak gidatzen dute talde hau. Argitaratu dituzten 5 diskoetan inork ez bezala jakin izan dute blues, boogie eta R&B klasikoa piano-estiloen arimarekin islatzen. Kontzertuetarako indarrak batzen dituzte Pablo Sanpa kitar-jotzaile madrildar handiarekin.*



## Noa & The Hell Drinkers

*2016an Donostian sortutako talde indartsua da hau. Urte hauetan bi lan argitaratu dituzte. Estatuko eta Europako Blues jaialdi askotan parte hartu dute, eta blues/rock talde baloratuenetako bat dela esan dezakegu. 2023an Europako blues talde onenaren saria lortu zuten 'European Blues Challenge'a irabazita.*



► **KALEJIRA / MAIATZAK 16, LARUNBATA, 13:00**



## Broken Brothers Brass Band

*Iruñeko bandak herriko kaleetan zehar gidatuko gaitu New Orleaneko 'Brass Band' ospetsuetan ohikoa den 'kaleko musika' itsaskorarekin, Gaztelekutik abiatuta 13:00etan.*



► **KONTUTAN HARTZEKOAK**

### SARRERAK

*Kontzertuetarako sarrerak –egun batekoa 10€, bi egunekoa 18€– [www.onati.eus](http://www.onati.eus) webgunean edo karteletako QRan eskura daitezke.*



### BLUES TAILERRA

*Larunbatean (maiatzak 16, Gaztelekuan, 17:30) gazteei zuzendutako blues-tailerra egingo da, Noa (Hell Drinkers) eta Ster-ek (Wax & Boogie) gidatuta.*

### OÑATIKO BLUES ELKARTEA

*Duela lau urte sortu zuten herriko blues-zale taldeek eta 140 kide ditu egun. Bertako kide egiteko idatzi [onatikoblueselkartea@gmail.com](mailto:onatikoblueselkartea@gmail.com) helbidera. Jaialdiaren harira merchandising-a (kamisetak, biserak, poltsak...) ere atera dute. Elkartearen sare sozialen bidez egin daiteke eskaera.*



# Euskal musika protagonista musika bandaren denboraldiko azken kontzertuan

> **Lau teilatu, Txoriak txori, Xalbadorren heriotzean** eta **Aitormena** bezalako doinu kuttunak entzuteko aukera izango dugu, bandarako moldatuta.

> **Maria Izaga** abeslariak ere parte hartuko du kontzertuan.



> **MAIATZAK 31, IGANDEA, ZUBIKOA PILOTALEKUAN, 13:00**

**Betiko emozioak** izenburupean, denboraldiko azken kontzertua eskainiko du Oñatiko Musika Bandak maiatzaren 31n. Kontzertu berezia izango da eta euskal musika izango da protagonista, euskal kantutegian ikur bilakatu diren hainbat abesti eder entzuteko aukera izango baitugu, musika bandaren formatura egokituta, eta Maria Izagaren ahots goxoak lagunduta.

Ondoko egitarauan ikus daitekeen moduan, garai eta estilo ezberdinetako doinu ederrez gozatu ahal izango dugu, hala nola, *Lau teilatu* kantu emblematikoa, askatasunaren eta identitatearen ikur bihurtu den *Txoriak txori*, edota *Hertzainak* taldearen kantu ezagunenetakoa den *Aitormena*, rockaren indarra banda formatuko sonoritatearekin uztartuz. *Oi ama Euskal Herria* eta *Xalbadorren heriotzean* kante herri-sentimendua eta sakontasun poetikoa emango diote kontzertuari eta, azkenik *Bizkaia maite* eta, bereziki, *Jaialdia* pieza alai eta biziarekin borobilduko du emanaldia musika bandak, Aitor Biain Bidarteren zuzendaritzapean.

## MARIA IZAGA ABESLARIA

Maria Izaga (Aramaio, 1994) abeslaria izango da kontzertuko gonbidatu berezia, eta bere ahots goxoarekin lagunduko dio musika bandari hainbat piezatan. Madrilgo Goi Mailako Kantu Eskolan ikasia, graduondoko ikasketak egiten ari da egun Musikenen. Hainbat abesbatzetan –Papargorri, Izaskun Murgia elkarte lirikoa, Oñatiko Ganbara Abesbatza, Euskal Herriko Gazte Abesbatza...– aritu izan da bere ibilbidean, eta hainbat oratorio, opera eta zartzuela ere interpretatu ditu, eta oholta gainean emozioa eta gertutasuna transmititzeko duen gaitasunagatik nabarmendu ohi da.

## EGITARAU OSOA (41:05)

- *Lau teilatu* - J. C. Perez (6:00)
- *Txoriak txori* - Mold: I. Urkizu (5:30)
- *Martxa baten lehen notak* - Mold: J. Ituarte (4:15)
- *Aitormena* - Hertzainak (3:50)
- *Oi ama Euskal Herria* - Mold: H. Extremiana (3:30)
- *Xalbadorren heriotzean* - Mold.: A. Briz (6:00)
- *Bizkaia maite* - Mold: I. Urkizu (4:00)
- *Jaialdia* - Mold: I. Urkizu (9:00)

Oharra: Kontzertua dohainik da, baina sarrera eskuratu behar da Txokolateixan



# Beethoven, Grieg eta Schuberten musika Aequus Ensemble orkestraren eskutik

> MAIATZAK 31, IGANDEA, MIKEL GOIINGERUAREN PARROKIAN, 19:00



Oñatiko Ganbara Faktoriaren baitan sortutako Aequus Ensemble orkestrak kontzertu sinfoniko berezia eskainiko du maiatzaren 31n (Mikel Goiaingeruaren parrokoa, 19:00) Aitor Biain Bidarteren zuzendaritzapean. **Lumen et Vis** (Argia eta Indarra) izenburupean, musika sinfonikoaren erreperitorio klasikoaren hiru konpositore handiren lanak entzuteko aukera izango dugu: Edvard Grieg (Norvegia, 1843-1907), Franz Schubert (Austria, 1797-1828) eta Ludwig van Beethoven (Alemania, 1770 - Austria, 1827).

Izenburuak berak (Lumen et Vis) ongi erakusten du programaren izaera: alde batetik, musikaren argi poetikoa eta lirismoa, eta, bestetik, indarra, energia eta adierazkortasuna. Aukeraturako obrek bi alderdi horiek islatzen dituzte, XIX. mendeko musika erromantikoaren emozioa, edertasuna eta indarraren erakusgarri.

Kontzertuaren lehen zatian Edvard Greigen *Dos melodías elegíacas, op. 34* joko du orkestrak, atmosfera sakona eta lirikoa sortzen duten bi pieza: *El corazón herido* izenekoak kutsu sentibera eta malenkoniatsua du, eta *Primavera*-k berriz, itxaropen eta argitasun giroa sortzen du, naturaren berpizkundea irudikatuz.

Ondoren, Franz Schuberten *Obertura en Do Mayor, d. 591* entzun ahal izango dugu. Obra honek Schuberten estiloaren freskotasuna eta energia islatzen ditu, melodia argia eta dinamika biziekin.

Kontzertuaren bigarren zatian, Beethovenen *7. Sinfonia* interpretatuko du Aequus-ek, konpositore alemaniarraren obrarik ospetsuenetako bat. Maiz 'eritmoaren sinfonia' deitu izan zaio obra eder honi, bere energia eta mugimendu etengabeengatik. Lau mugimenduetan zehar intentsitate dramatikoak, emozioen sakontasuna eta indar erritmikoa uztartzen ditu Beethovenek. Bereziki ezaguna da bigarren mugimendua -Allegretto-, bere atmosfera solemne eta hipnotikoagatik.



## 'LUMEN ET VIS' (Argia eta Indarra)

1. **Dos melodías legíacas, op. 34** –Edvard Grieg– (10')
  - I. El corazón herido
  - II. Primavera
2. **Obertura en Do Mayor, d. 591** –Franz Schubert– (9')
3. **7ª Sinfonía** –Ludwig van Beethoven– (37')
  - I. Poco sostenuto - Vivace
  - II. Allegretto
  - III. Presto
  - IV. Allegro con brío

Kontzertu eder honetarako sarrerak (8€) Txokolateixan eta [www.oñati.eus](http://www.oñati.eus) webgunean eskura daitezke. Programa hau berau aurretik Basauriko Udaberriko Musika Zikloaren baitan eskainiko du Aequus Ensemblek, maiatzaren 16an, San Migel elizan, 20:00etan.



>> LITERATURA TXATALAK (XIV)

## Manuel Umerez Goribargoitia (1757-1818). Bizitza eta obria (III)

Testua: Roberto Altuna

### Lanon ibillerak: Goribargoittitik Arrazola Azpikora



Goribargoitti baserrixa (Goribar auzua). Argk.: Roberto Altuna

Aurreko bi artikuluetan aittatu dogun moduan, Manuel Umerez Agirre Goribargoittiko semiak bi lan mardul eskribiu zittuen Oñatiko euskeraz XIX. mendiaren hasieran, *Osaba baten...* izenekua 1805ian, eta haren birki laguna *Errectore Jaun baten...* deritzana be, danon ustez, urte horren inguruan. Gero bixak bere jaiotetxian geratu ziran hango senidien eskuetan.

1818xan, egillia hildakuan, bere illoba abadia Juan Jose Umerez Kortazarrek (1775-1835), jasoko zittuen herentziaz eta Goribargoittin euki zittuen hil artian.

Aittatutako Juan Jose hil zanian, berriz, lanok bere illoba Pedro Arrazola Umerez (1804-1840) abadiaren eskuetan jarri, eta, hartara, eskuizkribuok bere jaiotetxera –Arrazola Azpikora– aillegauko ziran; izan be, hirugarren abade honen ama Goribargoittitik Arrazola Azpikora ezkontzaz etorrixa zan.



Arrazola Azpikua (Olabarrieta auzua). Argk.: Roberto Altuna

Gizaldi oso batian ezkutauta egon ondoren, 1930ian Jose Adrian Lizarralde historialari frantziskotarrak berriz topau zittuen itzittako lekuan –Olabarrieta auzoko Arrazola Azpikuan– eta Leonardo Zabaleta abade oñatiarraren eskuetan jarri.

1961ian, Koldo Mitxelenak bere 'Fonética Histórica Vasca' liburu ospetsuaren bibliografian *Errectore Jaun baten* eskuizkribua aittaketan dau, lan mardul hori egitteko gutxi-asko ebalu eban seiñale.

1974 aldera, Oñatiko Liburutegiko Batzordiak eskuizkribuak berreskuratu eta argittara emuteko asmua erakutsi eban. 1975ian, batzorde horrek eskatuta eskuizkribuak Arrazola Azpikotik etaratia konsegiu zan, eta orduko alkate Reyes Korkostegiren laguntasunaz lanen kopixak egin ziran. Horretarako, Mondragueko Lankide Aurrezki Kutxaraiño (gaur eguneko Laboral Kutxa) jo bihar izan euen, sasue hartan ixixa iñun ez eguelako fotokopixadorarik.

1980ko hamarkadan, Jerardo Elortzaren ardurapeian *Osaba baten...* eskuizkribuaren transkripziñua egin zan.

2021ian, udalaren laguntzaz eskuizkribuak digitalizau eta udalaren webgunian\* ifiñi ziran ikerlari\* eta herritarren eskura egon zittezen. Horren ondoren, jatorrizko bi liburuak berriz Olabarrieta auzoko Arrazola Azpiko baserrira itzuli ziran.



Oxel Uribe-Etxebarria, Anik Zubizarreta, Jose Ramon Arrazola, Iñaki Olalde, Jerardo Elortza eta Ramon Martin, 2021eko martixaren 24an, Manuel Umerezen liburuaren digitalizaziñuaren aurkezpen egunian. Onduan jatorrizko *Osaba baten...* eskuizkribua atrillian. Argk: Iñigo Arregi

- (\*) 1. [https://www.oñati.eus/eu/udala/argitalpenak/osaba-instruccinuac\\_1-alea.pdf](https://www.oñati.eus/eu/udala/argitalpenak/osaba-instruccinuac_1-alea.pdf)  
2. [https://www.oñati.eus/eu/udala/argitalpenak/errectore-instruccinuac\\_2-alea.pdf](https://www.oñati.eus/eu/udala/argitalpenak/errectore-instruccinuac_2-alea.pdf)

**Oharra:** Interneterako konexiño ona edo banda zabala izan ezian, lanok dakoin pisu haundixa dala-eta, ezin dira ikusi.

(\*) 2019xan hasitta, Oxel Uribe-Etxebarria EHUKo unibersidadian lanian dabillen Eskoriatzako irakasle eta ikerlari gaztiak Manuel Umerezen eskuizkribuen tesisa egitten dihardu, eta 2026xan akabaitteko asmotan dabil ondoren argitaraketako. Suerterik onena opa xaugu langintza horretan!

Itturrixa: Jerardo Elortzaren zenbait artikulu, Oxel Uribe-Etxebarriaren gainbegiratuarekin.

## Cartonajes Arregui, S.A.



- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09  
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

**Herriko txoko  
guztietara iritsi  
nahi?**

Jarri zure iragarkia  
aldizkarian

[publi@onati.eus](mailto:publi@onati.eus)

# AGENDA

## AUZOETAKO JAIAK

MAIATZAK 8-10

**SAN MIGEL TXIKI JAIAK**

MAIATZAK 16-17

**MURGIXA AUZOKO JAIAK**

MAIATZAK 29-31

**ERREKALDEKO JAIAK**

MAIATZAK 30-31

**ARAOZKO JAIAK**

## BERTSO SAIOAK

MAIATZAK 9 / 18:00

**HERRI ARTEKO TXAPELKETAKO  
FINALERDIA**

Azpeitiko 'Zaharrak Berri' eta Leintz taldeak ariko dira aurrez aurre (bertsosarrerak.eus) [Gaztelekuan](#).

## HITZALDIAK

MAIATZAK 13 / 10:00

**'EUSKAL LITERATURAREN MITOAK  
(APURTZEN)'**

Hizlaria: Iban Zaldia, historia irakaslea eta idazlea. Esperientziaren Gelak antolatuta. [Santa Ana antzokian](#).

MAIATZAK 20 / 19:00

**PALESTINARI BURUZKO SOLASALDIA**

Hizlariak: Mikel Aramendi eta David Lazkanoiturburu. [Kultur etxean](#).

MAIATZAK 28 / 18:15

**GURUTZE GORRIA**

Gurutze Gorriak eskaintzen dituen zerbitzuen inguruan. [Pake Lekun](#).

## MUSIKA

MAIATZAK 9 / 19:00

**HAUR ETA GAZTE ABESBATZEN  
TOPAKETA**

Oñati, Legazpi eta Andoaingo haur eta gazte abesbatzen emanaldia. [Santa Ana](#).

MAIATZAK 15 / 21:30

**EMILIO ARSUGA & THE MAD REEDS +  
THE ALLNIGHTERS**

Oñatiko II. Blues Jaialdia. [Gaztelekuan](#).

MAIATZAK 16 / 13:00

**BROKEN BROTHERS BRASS BAND**

Kalejira herriko kaleetan, Oñatiko II. Blues Jaialdiaren baitan.

MAIATZAK 16 / 21:30


**WAX & BOOGIE ETA PABLO SANPA +  
NOA & THE HELL DRINKERS**

Oñatiko II. Blues Jaialdia. [Gaztelekuan](#).



## 'ESKAILERAPEKOA' bakarrizketa saioa

Idoia Torregarai eta Mirari Martiarenaren eskutik, Oñati BHIko Guraso Elkarteak antolatuta [Maiatzak 7, zine aretoan, 19:00](#).



## 'LUCIO BAIKAINA!!!' arte lantegia

6-12 urteko neska-mutikoentzat. Prezioa: 5€. Izen-ematea: 688 613 840 / [adiskideak@arantzazu.org](mailto:adiskideak@arantzazu.org). Plaza mugatuak. [Gandiaga Topagunean](#), 10:30-13:30.

MAIATZAK 17 / 19:00

**'ATZERA BEGIRA'**

Ganbara Faktoriaren bizkide-kontzertua. Parrokian.

MAIATZAK 23 / 12:30

**MAHOMA SAZ**

'Oñati Palestinarekin' taldeak antolatuta. [Gaztelekuan](#).

MAIATZAK 23 / 22:00

**PARABELLUM + RAMAD INN**

'Oñati Palestinarekin' taldeak antolatuta. [Gaztelekuan](#).

MAIATZAK 31 / 13:00



## ERAKUSKETA

### 'ARTEA ETA INTERIORISMOA'

Artea eta barne diseinua modu berritzaile eta esanguratsuan konektatzea helburu duen ekimena jarri zuen abian Andrea Azkoagak iazko irailean, artearen eta interiorismoaren arteko loturak esploratzeko asmoz. Herriko sei artistek parte hartu dute ekimenean, proposatu zaizkien gai ezberdinen inguruan beraien arloko artelanak sortuz, eta orain artista horien lanak batera ikusteko aukera egongo da. [Kultur etxean, maiatzaren 4tik 17ra \(egunero, 18:00-20:00\)](#)



## PINTURA ERAKUSKETA herriko dendetan

Udalak antolatutako pintura tailerretako ikasleen margolanak ikusgai egongo dira maiatzaren 1etik 21era herriko dendetako erakusleihoetan. [Maiatzaren 21era arte](#)

**'BETIKO EMOZIOAK'**

Musika bandaren kontzertua. [Zubikoan](#).

MAIATZAK 31 / 19:00

**'LUMEN ET VIS'**

Aequus Ensemble orkestraren kontzertua. Parrokian.

## TAILERRAK

MAIATZAK 16 / 17:30

**BLUES TAILERRA**

Gazteei zuzendutako tailerra, Noa (The Hell Drinkers) eta Ster-ek (Wax & Boogie) gidatuta. [Gaztelekuan](#).



## Haurrentzako ipuin kontaketa saioa

**MAIATZAK 28 /18:00**

'Ostegun Kontalariak' ekimenaren baitan LH1etik gorako neska-mutikoei zuzendutako 'Txirriki-Txarraka' ipuin kontaketa saioa egongo da hilaren 28an, Amaia Egidazu durangarraren eskutik. Gauzak galtzen –etxeko giltzak, txanoa, motxila, baloia...– bereziki trebea den ume baten istorioa kontatzen du. Gaurkoan, amak enkargu berezia egin dio: gaixorik dagoen amamarentzako gauza pila bat eraman behar dizkio. Lortuko al du amamaren etxera iristea bidean ezer galdu barik? Gonbidapenak, maiatzaren 18tik aurrera.. [Haur liburutegian](#).

**MAIATZAK 23 / 10:00-14:00**

### FAMILIA KONSTELAZIOAK

M<sup>a</sup> Luisa de Dios García adituak gidatua, Artez Hezten / *Creciendo con Arte* taldeak antolatuta. Lekua erreserbatzeko: 628 212 839. [Eltzian](#).



## ZINEA

**MAIATZAK 21 / 19:00**

### 'PALESTINAREN BESTELAKO BEGIRADAK'

Laburmetrai emanaldia, 'Oñati Palestinarekin' taldeak antolatuta. [Zine aretoan](#)

## ZIRKOA

**MAIATZAK 15 - 31**

### GURE ZIRKUA

Emanaldiak: Ostirala 15 (19:00), Larunbata 16 (12:00), igandea 17 (12:00/17:00), ostirala 22 (19:00), larunbata 23 (18:00), igandea 24 (12:00/17:00), larunbata 30 (18:00) eta igandea 31 (12:00/17:00). Sarrerak: [www.gurezirkua.eus](http://www.gurezirkua.eus). [Olaiturrin](#)

# ZINEA

**Zine-kluba:** Osteguna (19:30)

**Nagusiak:** Ostirala (22:00), larunbata (19:30 / 22:00) eta Igandea (19:30)

**Gaztekoak:** Larunbata eta Igandea (17:00)

**Ikuslearen eguna:** Astelehena (19:30)

## MAIATZAK 8 - 11

**ZINE KLUBA:**

-

**NAGUSIAK:**

**AMARGA  
NAVIDAD**

**GAZTETXOAK:**

-



## MAIATZAK 15 - 18

**ZINE KLUBA:**

-

**NAGUSIAK:**

**KRAKEN: EL LIBRO  
NEGRO DE LAS  
HORAS**

**GAZTETXOAK:**

-



## MAIATZAK 22 - 25

**ZINE KLUBA:**


-

**NAGUSIAK:**

**LA ISLA DE  
AMRUM**

**GAZTETXOAK:**

-



## MAIATZAK 29 - EKAINAK 1

**ZINE KLUBA:**

-

**NAGUSIAK:**

**RECREACION DE  
UN ASESINATO**

**GAZTETXOAK:**

-



## FARMAZIA

### ANDUAGA

**San Lorentzo 3 / ☎ 943 78 21 16**

Maiatzak 11, 12, 20, 21, 29, 30 eta 31. Ekainak 8 eta 9.

### IGARTUA

**Kale Zaharra 1 / ☎ 943 78 01 22**

Maiatzak 4, 5, 13, 14, 22, 23 eta 24. Ekainak 1 eta 2.

### GARATE

**Kale Barria 42 / ☎ 943 78 05 58**

Maiatzak 6, 7, 15, 16, 17, 25 eta 26. Ekainak 3 eta 4.

### ULDAIN

**Kale Barria 6 / ☎ 943 78 11 28**

Maiatzak 8, 9, 10, 18, 19, 27 eta 28. Ekainak 5, 6 eta 7.

## ODOL ATERALDIA

**MAIATZAK 15 / 16:30-20:30**

MU-ko Enpresagintza fakultatean. Aurrez, <https://gotatanta.eus> atarian har daiteke odola emateko txanda. Bestela, egunean bertan **943007884** zenbakira deituta.

## MERKATU TXIKIA

### ETXEA ALOKAGAI ONATIN

Etxebizitza alokairuan ematen da San Martin auzoan. Sukaldea, egongela, 2 logela, bainua eta trastelekua. Garaje itxia alokagai, aukeran. Deitu: 685 712 295

### BULEGOA ALOKATZEN DA

Euskadi etorbidean, 18m<sup>2</sup>. Deitu: 622 776 409

### GARAJE ITXIA ALOKAGAI

Garaje itxia alokairuan ematen da Arantzazuko Ama kalean. 630152329

### GARAJEA SALGAI

Makalenian garajea salgai (18.000€). 629422190

### LANERAKO PREST

Emakume arduratsua eta atsegina, umeak zaindu edo eskolara eramateko, edota adineko pertsonen konpainia egiteko prest. 695738795

## MERKATU TXIKIA

[kontzejupetik@onati.eus](mailto:kontzejupetik@onati.eus)

943 78 20 72

# Hilabete honetan, Pakoren besaulki gogokoena sarria du

 Bilatu gure  
Instagram profilean



## NOLA PARTE HARTU?

1



Sartu gure  
Instagram  
profilera.

2



Aurkitu Pakok bere  
besaulki gogokoaz  
hitz egiten duen  
bideoa.

3



Eskaneatu QR  
kodea eta bete  
formularioa zure  
erantzunarekin.

**%5**  
ko deskontua  
zozketatzen  
dugu

Erantzun zuzenen artean,  
%5eko deskontua  
zozketatuko dugu gure  
dendan 2026 osoan  
trukatzeko.

Eskaneatu hemen  
eta parte hartu.

